

# TOLOSAREN 2016KO ARGAZKI PARTEKATUA

1. ATALA  
2016KO AZAROA



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa

*Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako proiektua, Tokiko Agenda 21 programako ekintza planak garatzeko diru-laguntzen (Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua) eta Herritarren partaidetza sustatzeko lurraldeko udalei zuzendutako diru-laguntzen (Herritarren partaidetzarako Foru Zuzendaritza) esparruan.*





**LAGUNTZA TEKNIKOA**

*Lan hau ENEA eta IKERTALDE enpresen laguntza teknikoarekin egin da. Biek, elkarlanean, dokumentu teknikoak idatzi eta parte hartze prozesua gidatu dute.*

# Aurkibidea

---

1	SARRERA	7
2	AURREKARIAK: AGENDA 21ETA GOBERNANTZA	8
3	TOLOSATZEN PROZESUA	11
4	DISEINUA	15
5	ARGAZKI PARTEKATUA: · Pertsonak · Hezkuntza eta kultura · Ingurumena eta lurralde antolaketa · Ekonomia	20
6	HONA HEMEN ONDORIOAK	104


---

---

Gizartea etengabe aldatzen doa. Tolosa ere. Gero eta konplexuagoa den, elkarrekiko dependentzia eta interakzio handiagoa dugun, berehalakotasunak agintzen duen, gizarte batean bizi gara. Horregatik, beharrezkoa da parte hartzearen bidetik, elkarlanetik, erronkei eta aukera berriei bide ematen ikastea.

Asmo horrekin jarri dugu abian Tolosaten prozesua. Elkarlanetik eta erantzukizunetik lan egiteko espazio berria. Tolosar orori aukera eman nahi diona. Guztiok osatzen dugulako Tolosa. Guztiok nahi duguna izango delako Tolosa.

---



Guztion parte hartzea  
ezinbestekoa da, Tolosa  
guztiok osatzen dugulako.  
Eskerrik asko abiapuntu  
honetan TOLOSATZEN  
lagundu diguzuen guztioi



# 1 SARRERA

Dokumentu hau Tolosako Udalak abian jarri duen **hausnarketa estrategikoaren** eremuan kokatzen da, zeinak **gobernantza eredu berri** bat artikulatzea du helburu, herritarrenganako hurbiltasuna sustatu eta politika publikoen kudeaketa berritzaile eta eraginkorragoaren aldeko aurrerapausoak ematen lagunduko duena.

Gobernantza eredu berria eraikitze prozesu honetan **genero ikuspegia** modu zeharkakoan txertatuta egoteari garrantzi berezia emango zaio, prozesuaren fase eta pauso guztietan printzipio hau kontutan izango delarik.

Prozesua aurrera eramateko hiru parte-hartze eremu definitu dira: **Lankidetzak Mahaia** (udal teknikariez osatuta), **Jarraipen Batzordea** (gobernu taldeko eta oposizioko politikariez osatuta) eta **Talde Sustatzaileak eta Mahai Sektorialak** (herritarrez osatuta). Honez gain, prozesuari ekarpenak egiteko bestelako tresnak (udal web orriko eta kaleko inkestak) eskura jarri dira.


Gobernantza eredu berria eraikitze prozesu honetan genero ikuspegia modu zeharkakoan txertatuta egoteari garrantzi berezia emango zaio.

Honekin guztiarekin, **elkarren arteko sinergiak** bilatuz eta **sorkuntza partekatua**ren bitartez, etorkizuneko **Tolosaren norabidea** zehaztu nahi da, erronkak definituz eta xedeak finkatuz.

Ondoren, hau guztia aurrera eramateko **plangintza** bat definituko da, helburu eta ekintza zehatzak jasoko

dituena eta Tolosako Agenda 21aren ibilbideari jarraitzea emango diona. Planak gobernantza ereduaren elementu nagusiak eraikitzen joatea lagunduko duen tresna izango da, horien artean, sortu diren hiru lantaldeen eginkizunak.

Lehenik eta behin, Tolosaren **egungo argazki partekatua** osatzeari ekin zaio, lan honen emaitza nagusiak Dokumentu honetan jasotzen direlarik. Argazkia lau ataletan banatzen da: **pertsonak, kultura eta hezkuntza, ingurumena eta lurralde antolamendua eta ekonomia**. Atal bakoitzean gai edo esparru ezberdinen inguruko **datu esanguratsuak** azaltzen dira, ondoren **herritarrek** gai horien inguruan egindako **ekarpenen** laburpena aurkezten da eta, azkenik, aurrekoan oinarrituz eta politikarien zein teknikarien ekarpenak gehituz, atal bakoitzaren **ondorio nagusiak** azaltzen dira, etorkizunera begirako bidea marrazteko abiapuntu ezin hobea.



tolosatzen

Talde Sustatzaileak "Tolosatzen" izena jarri dio prozesuari. Izenak elementu ezberdinen batura islatu nahi du, hala nola, herria eginez eta herri bizitzarekiko etengabeko jarrera.


# 2 AURREKARIAK: AGENDA 21 ETA GOBERNANTZA

Tolosak urteak daramatza **Tokiko Agenda 21**aren testuinguruan udalerrri iraunkorrago baten alde lan egiten. 2003an bere lehenengo Ekintza Plana onartu zuen, horrela, iraunkortasun eremuan hobekuntza helburuak lortzera zuzendutako tokiko planifikazio bat izaten Euskadiko lehenengotariko herria izanik. Lehen plana agortuta, bere berrikuspena egin eta Tolosa 2015 Plana onartu zen, gaur egunera arte indarrean egon dena.

Asko izan dira orduz geroztik lortutako arrakastak eta udalerrriak egindako apustu eta esfortzuak eta hauek udalerrian eragina izateaz gain, erakunde desberdinengatik aitortuak izan. Horren adibide da, **Udal-sarea 21**ek Agenda 21en kalitate globala saritzeko egindako lehen edizioan **tak21 zilarra** saria eman izana.

Tolosak urteak daramatza Tokiko Agenda 21aren testuinguruan udalerrri iraunkorrago baten alde lan egiten.


PLANAREN EZARPEN-MAILA (2015)



Azken urtetan Tolosak iraunkortasun arloan eman dituen pasuak gidatu dituen plana agortua dago dagoeneko, % 62ko ezarpen maila lortu duelarik. Aipatzekoa da aurreikusita zeuden 186 ekintzetatik ia % 86a dagoeneko martxan dagoela. Martxan jarri ez diren ekintzei dagokionez (25) egungo egoera eta beharrei erantzuten ez dietela ikusi da.

Bestalde, plana osatzen zuten 6 helburu nagusiei dagokionez, Bizikidetza, justizia soziala eta berdintasunaren inguruko ekintzak jasotzen dituen ildo estrategikoa da gehien garatu dena (% 67), eta bestalde, ezarpen-maila txikiena duten ildoetarako dagokio-

nez, Herriko baliabide naturalak babestu, kontsumo jasangarria sustatu eta hondakinen kudeaketa optimizatzea eta Kultura, Euskara, kirola eta aisia sustatu, berrikuntza parametroetatik deritzon ildoak izan dira, % 53 eta % 57ko garapena lortuz besteak beste.



1. Tokiko garapen ekonomiko eta urbanoa sustatzea, jasangarritasuna eta berrikuntza irizpideetatik abiatuta.
2. Bizikidetasuna, justizia soziala eta berdintasuna bultzatuko dituen herri baten aldeko apustua egin.
3. Kultura, euskara, kirola eta aisia sustatu berrikuntza parametroetatik.
4. Herriko baliabide naturalak babestu, kontsumo jasangarria sustatu eta hondakin kudeaketa optimizatu.
5. Klima aldaketa eta berotegi efektuko gasen isuriak arintzea.
6. Udal administrazioa kudeaketa eraberritzailearen eta herritarren partaidetzaren aldekoa izateko lan egitea.

*OHARRA: Argitalpen hau ixteko momentuan datu hauek ez zeuden ofizialki balioztatuta, beraz, datu definitiboak zertxobait aldatu daitezke.*



Azken urteetan pausu garrantzitsuak eman dira baita ere, gobernatzeko era berri baten alde lan egitea helburu izan dutenak. Hiru arlo nagusitan lan egin da bereziki:

- **Udaleko plan eta politiken kudeaketa hobetzea eta transbertsalizatzea helburu duten formula eta mekanismo berritzaileak barneratzea, honen adibide argia delarik duela urte batzuk martxan jarri zen sailen arteko koordinazio mahaia. Antolaketa modu honek aipamen berezia jaso zuen 2014ko Euskadiko **Udalerri Jasangarriaren sarietan**, jasangarritasun-politikak ezartzeko barneko egituraren eta antolaketa-kategorian.**
- **Udal politiketaren herritarren informazioa eta parte hartzea** sustatzea azken urteetako ikurra izan da baita ere, arlo honetan aurrerapausoak ematea helburu izan duten zenbait ekimen ere gauzatu dira, hala nola, Tolosa Kale biziak ekimena,...
- **Hasitako bideari jarraituz, Udalak herritarrei gerturatzeko bide horretan lan egiten jarraitzen du, Gar-**

**dentasuna oinarri izanik, web orrian Gardentasun atala garatu duelarik, non udaleko aktibitate eta datu eta kudeaketari buruzko informazioa herritarren esku dagoen.**

Orain artekoa oinarri hartuz, Udalak Gobernatzeko era berri horretan beste pausu bat gehiago eman nahi izan du, 2016ean **governantza eredu berri** bat artikulatzea du helburu hausnarketa estrategikoa abian jarriz.

Tolosa beti izan da aitzindari iraunkortasun eta parte hartze politikan. 2012 eta 2014 urteetan jasotako sariak horren adierazgarri.



Governantzak gobernatzeko modu kooperatiboagoa dakar berekin. Ordezkarri politikoaren eta herritarren arteko lankidetzaren areagotzen du. Horretarako informazioaren kudeaketa gardena eta herritarren parte hartzea politika publikoetan ezinbestekoa delarik




# 3 TOLOSATZEN PROZESUA

## • NORTZUK ARI DIRA PARTE HARTZEN

Prozesu hau aurrera eramateko hiru esparrutan lan egitea ezinbestekotzat jo da: maila teknikoan, maila politikoan eta herritar mailan, elkarren arteko sinergiak bilatuz eta sorkuntza partekatua bitartez.

Hiru lan-esparru hauei erantzuna emateko, ondoko egiturak sortu dira:





### Talde sustatzailea eta mahai sektorialak

**Talde Sustatzailea** udalerriaren aniztasuna ordezkatzen duten eragileek osatutako taldea da, non sektore desberdinetako ordezkariak parte hartuko duten. Gobernantza eredu berriaren testuinguruan, denboran egonkorra den estruktura izateko bokazioa izango duen herritarren taldea.

Berau osatzeko, abiapuntu bezala udal sail ezberdinekin elkarlanean udalerriko eragile gakoak eta orain arte egindako herritarren parte-hartze prozesuetan parte hartu izan dutenak identifikatu dira. Horiekin zuzenean kontaktatu da prozesua azaltzeko eta bertan parte hartzera gonbidatzeko.

Ondoren, martxoaren 17an, bilera ireki bat egin zen, tolosar guztiei zuzenduta, non prozesua azaltzeaz gain, bertaratutakoei talde sustatzailean parte hartzera gonbidatu zitzairen.

Talde sustatzailea **35 pertsona inguruk** osatzen dute, adina eta sexuaren arabera horrela banatzen direlarik:



Bestalde, herritarrei dagokienez, **mahai sektorialak** sortu dira, parte-hartze egitura irekiak non bertako elkarte edo erakundeetako ordezkariak zein herritar orok parte hartu ahal duten. Bilera hauen helburua gai zehatzen inguruko hausnarketa eta eztabaida aberatsa erraztea da prozesuaren bi momentu puntualetan: egungo argazkiaren osaketan eta planaren definizio fasean.

## Bileren helburua gai zehatzen inguruko hausnarketa eta eztabaida aberatsa erraztea da

Ondokoak dira sortu diren lau mahaiak: **pertsonak, kultura eta hezkuntza, ingurumena eta ekonomia.**

Etorkizunera begira, mahai sektorialek Planaren segimenduan paper aktiboa izatea aurreikusten da, eraikitzen ari den gobernantza ereduaren elementu garrantzitsua izango direlarik.

**Zergatik sortu dira herritarren parte-hartzerako bi egitura ezberdin? Zeintzuk dira bata eta bestearen arteko ezberdintasun nagusiak?** Galdera hauei erantzuteko, jarraian, bi parte-hartze mekanismo hauen funtzioak zehazten dira:

### TALDE SUSTATZAILEA

- Udallerriaren errealitate soziala eta ekonomikoa ordezkatzeari.
- Udallerria bere osotasunean hartu eta ikuspegi orekatua bermatzea, guztion onura beti gogoan izanik.
- Etorkizunera proiektatzea: udallerriaren erronka nagusien definizioa proposatzea eta ikuspegia formulatzea.
- Planaren ezartze-fasera begira, kontraste edo egiaztatze mekanismo bat izatea.

### MAHAI SEKTORIALAK

- Gai zehatzetan sakontzea eta sektore ezberdinen behar eta indarrak mahai gainean jartzea.
- Plana formulatzerakoan, ekintza zehatzak eztabaidatzea eta proposatzea.
- Planaren ezartze-faseari dagokionez, ekintzen segimenduan eta udal aurrekontuen lanketan parte hartzea, proposamen zehatzak eginez.

### Lankidetza Mahaia

Lankidetza Mahaia **udal teknikariek** osatutako parte-hartze organoa da. Talde Sustatzailearen kasuan bezala, etorkizunera begira sendotu eta egonkortuko den organo da, herritarrekiko lehenengo lotura-puntua izango delarik.

### Jarraipen Batzordea

Jarraipen Batzordea **gobernu taldeak zein oposizioan dauden talde politikoek** osatzen dute. Euren parte-hartzea prozesuan bertan adostasunak lortzeko egingo den lana oso garrantzitsua da, kontuan izanik epe luzera begirako lana izango dela, 2030 urtera hain zuzen.


### • PROZESUA PAUSUZ PAUSU

Gobernantza eredu berri bat eraikitzeak pausuz pausu joatea eskatzen du, fase batetik bestera ikasitakoak aplikatuz eta oinarri sendoak sortzen hastea. Hau dela

eta, proiektu honetan garrantzi berezia eman zaio diseinu faseari, non parte-hartze mekanismo eta egiturak antolatzeaz gain, prozesu osoa gidatuko dituzten parte-hartze jarraibide batzuk modu partekatuan definitu eta adostu egin diren.

Prozesu honen faseak ondoko hauek dira:

#### 1. ATALA



#### 2. ATALA



Denon diseinua: Gainontzeko plangintza estrategikoe-kin alderatuz gero, oinarrizko diferentzia parte-hartze mekanismoak, parte-hartze jarraibideak eta etorkizuneko ikuspegia talde sustatzailean adostu izana da

Jarraian, fase bakoitzaren helburu nagusiak zehazten dira:

	FASEAK	HELBURU NAGUSIAK
1. ATALA	1. DISEINUA	<ul style="list-style-type: none"><li>· Parte-hartze prozesuaren artikulazioa.</li><li>· Herritarren parte-hartzearen jarraibideak eta irizpideak definitzea eta adostea.</li><li>· Lan-esparru nagusiak identifikatzea.</li><li>· Ikuspegia irudikatzeko lehenengo pausuak ematea.</li></ul>
	2. ARGAZKI PARTEKATUA	<ul style="list-style-type: none"><li>· Udalerriko egungo egoeraren ikuspegi partekatua lortzea, diseinu fasean identifikatutako eremu estrategikoen arabera antolatuta.</li><li>· Eremu bakoitzaren lehentasunak identifikatzea eta modu partekatuan adostea.</li></ul>
2. ATALA	3. FORMULAZIO ESTRATEGIKOA	<ul style="list-style-type: none"><li>· 2030. urtera begira udalerrriaren ikuspegia, erronkak eta xedek definitzea eta adostea.</li></ul>
	4. PLANAREN DEFINIZIOA ETA EGINZEN KARAKTERIZAZIOA	<ul style="list-style-type: none"><li>· Datozen 8 urteetara begira, Ekintza Plan berri bat definitzea.</li><li>· Ekintzak partekatu, eztabaidatu eta modu partekatuan osatzea.</li></ul>
	5. SEGIMENDU EREDUAREN DEFINIZIOA	<ul style="list-style-type: none"><li>· Planaren ezartze fasera begira segimendu plan bat diseinatzea.</li><li>· Segimendu planean parte-hartze mekanismoen eginkizuna adostu eta balioztatzea.</li></ul>

Lehenengo atala, non proiektuaren bi fase garatu diren, diseinua eta argazki partekatua egitearenak jada burututzat eman daiteke.



# 4 DISEINUA

## • IRIZPIDE ETA KONPROMISOAK

Diseinu fasearen lanen artean, proiektuari lotutako herritarren parte-hartze prozesua gidatuko dituzten irizpideak eta konpromisoak lantzea eta adosteari garrantzi berezia eman zaio. Guztira 17 gai jarri dira mahai gainean ondoko lau ataletan sailkatuta:

- **KOORDINAZIOA ETA ANTOLAKUNTZA**
- **PARTE-HARTZAILEAK**

## • **METODOLOGIA**

## • **EMAITZAK**

Irizpide eta konpromiso hauek banan banan aztertu eta adostu dira talde sustatzailearekin eta beste bi parte-hartze organoekin (Lankidetzeta Mahaia eta Jarraipen Batzordea). Jarraian behin betiko irizpide eta konpromisoak aurkezten dira:

## A. KOORDINAZIO ETA ANTOLAKUNTZA

- 1. INIZIATIBA ETA LIDERGOA** Udalak inizatiba hartu eta proiektuaren lidergoa izango du, berea izango delarik prozesuarekiko ardura eta emaitzak.
- 2. BESTE PROZESUEKIKO ERLAZIOA** Partaidetzako prozesu honek izaera estrategikoa du eta izaera sektoriala duten eta udalerriarentzako interesa duten gai konkretuak epe motzagoan landuko dituzten beste prozesuekin bateragarria da.
- 3. GARDENTASUNA ETA INFORMAZIOAREN ESKURAGARRITASUNA** Proiektuan zehar sortuko den informazioa guztia (dokumentuak, aktak, txostenak,...) eskuragarri egongo da eta berau web orriaren bidez eta zuzenean Udalean eskatuz eskuratu ahal izango da.
- 4. FASEAK ETA EGUTEGIA** Prozesua ezarrita dagoen lan programaren arabera burutuko da, adostuta dagoen egutegia errespetatuz.



## B. PARTE-HARTZAILEAK

- TALDE SUSTATZAILEA/  
MAHAI SEKTORIALAK** Prozesu honi lotutako herritarren partaidetza talde sustatzailearen eta mahai sektorialen bidez giltzatuko da. Mahai sektorialetan talde sustatzaileko partaideez gain interesa duten tokiko eragileek ere parte hartuko dute.
- ASISTENTZIA  
KONPROMISOA** Planean sartuko diren ekintzen eta prozesuarekin lotutako bestelako elementu estrategikoei buruzko erabakietan parte hartu ahal izateko, talde sustatzailea osatzen duten pertsonei gutxienezko asistentzia eskatuko zaie.
- IKUSPEGI GLOBALA  
ETA GUZTION ONURA** Talde sustatzailea osatzen duten pertsonak ikuspegi globala duten ekarpenak egiten saiatuko dira, tolosar guztien onuraren alde eginez eta norberaren interesek ez dute tokirik izango.
- DIBERTSITATEA** Parte-hartzaileen dibertsitatea (genero, adin, jatorria,... kontutan hartuz) sustatuko da, bai talde sustatzailean, baita mahai sektorialetan ere, ikuspuntu desberdinak aberastu eta ahalik eta ikuspegi gehienak jasotzeko.
- ORDEZKAPENA** Talde sustatzailea osatzen duten pertsonek maila pertsonalen parte hartuko dute. Mahai sektorialetan aldiz, bakoitzean lantzen den gaiarekin erlazioatutako elkarte/erakundeetako ordezkariak egon ahal izango dira.
- PROZESUAREN  
IREKITZE MAILA** Eragile gakoiei egindako gonbidapen zuzenak eta herritar orori zuzendutako gonbidapen irekien arteko konbinazioa egingo da, prentsa eta udal web zein sare sozialen bidez ere zabalduko direlarik eta, honekin batera, talde sustatzailearen baitan egindako lana ere ikusgai egongo da, bertan soilik gera ez dadin.



## C. METODOLOGIA

11. **EKARPENAK EGITEKO BIDEAK** Ekarpenak egiteko aurrez-aurreko espazioez gain, udalerriko web, sare sozialen eta bestelako tresnen bidezko parte-hartze bideak eskuragarri egongo dira. Hala ere, azken hauen bidez jasotako ekarpenak talde sustatzailearekin egiaztatuko dira.
12. **PARTAIDETZAREN IZAERA** Partaidetzazko prozesu honen emaitzek konponbideen bilaketa partekatuan eragin errealia izango dute, testuinguru honetan herritarren, udal teknikarien eta politikarien arteko adostasun zubiak eraikitzeke tresnak jarriko direlarik Hiru espazio horietan adostutako emaitzak planean txertatuko dira eta Gobernu Organoak hauek betetzeko konpromisoa hartuko du.
13. **MALGUTASUNA** Prozesuak nolabaiteko malgutasuna izan beharko du bere osotasunean, momentuko beharrei egokitzea baimenduko duena, betiere ikusmira azken helburuan izanik.
14. **ERABAKIAK HARTZEA (GEHIENGOA/ADOSTASUNA)** Prozesua ezarrita dagoen lan programaren arabera burutuko da, adostuta dagoen egutegia errespetatuz.
15. **EBALUAZIO JARRAITUA (BILERA BAKOITZEAN)** Saio bakoitzean berau ebaluatzeko espazioa egongo da eta bertan jasotako ekarpen guztiak kontutan hartuko dira eta partaidetza eredu beharren arabera egokituko da.

## D. EMAITZAK

16. **DOKUMENTUETAN ISLA IZANGO DUTEN EKARPEN** Prozesuan zehar sortuko diren ekarpenak Diagnostiko eta Ekintza Plana dokumentuetan jasoko dira, partaidetza prozesuan burututako lana ikusaraziz.
17. **JARRAIPEN ORGANO BATEN SORKUNTZA** Prozesuaren emaitza gisa Jarraipen organoa eratzea aurreikusten da, udal kudeaketa eredu berriaren nukleo gisa, zeinak etorkizunean eta plana onartuta, beraren jarraipenean rol espezifiko izango duen.

## Mahai sektorialen egituraketa

Mahai sektorialen egituraketa eta mahai bakoitzean jorratu beharreko gaiak talde sustatzailearen proposamena izan zen, ondoren Lankidetzeta Mahaian eta Jarraipen Batzordean beratu osatu eta adostu izan zelarik.

Mahai sektorialak gaien arabera antolatu dira eta ondoko hauek dira:



### Pertsonak

- Osasuna
- Ongizatea
- 3. Adina, gazteak, etorkinak
- Emakumeak
- Ezgaitasuna
- Bizikidetzeta eta kohesioa
- Bizi-kalitatea



### Kultura eta Hezkuntza

- Euskara
- Kulturartekotasuna
- Hezkuntza
- Kirola
- Kultura (ekipamenduak, Eskaintza,...)
- Elkarteak



### Ingurumena eta lurralde antolamendua

- Hirigintza eta etxebizitza
- Natur Baliabideak (ura, energia, hondakinak)
- Ingurumen Naturala
- Mugikortasuna



### Ekonomia

- Enplegua
- Baldintza sozioekonomikodunak
- Ekintzailletza
- Merkataritza

Egitura hau argazki partekatua osatzen dituzten fitxak (dokumentu honetan jasotzen direnak) antolatze-ko ere erabili da, bileretan landutako eta dokumentue-tan azaldutakoaren arteko lotura erraztearren.

### Ikuspegiaren lanketa

Diseinu fase honen beste helburuetariko bat herri-tarrekin Tolosako 2030. urteko ikuspegiaren lanketa hastea izan da. Honetarako, saio desberdinetan ideiak jaso eta modu partekatuan forma eman zaie, mahai sektorialaren egituraketari jarraituz.

Orain arte talde sustatzailearen eremuan egindako lanak ikuspegia osatzeko baliagarriak izango diren elementu sendo batzuk finkatzen ditu jada eta be-  
rau hartuko da oinarri gisa, behin betiko ikuspegia definitzeko, zeina herritarren, politikarien eta tekni-  
karien ekarpenekin osatuko den. Jarraian lanketa ho-  
nen emaitza azaltzen da:

#### • PERTSONAK:

*Tolosar guztion, ongizatea eta osasuna bermatuko duen herria, arlo guztietan kohesionatua egongo dena eta bizimodu osasungarria eta bizi-kalita-*

*tea bultzatuko dituena, baita bizimodu aktiboa eta parte-hartzailea ere, balore guzti hauek balioan jarriko dituena.*

#### • KULTURA ETA HEZKUNTZA:

*Tolosa aniztasunean eraikitako herri bizia, jakintsua eta ekintzailea da. Ingurua eta bere burua ongi ezagutzen duen kultur anitzeko herria, euskara ardatz izanik guztiok gustura eta eroso sentitzea ahalbidetuko duena.*

#### • INGURUMENA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA:

*Tolosa herri iraunkor eredugarria izango da, hiri eredu alternatibo baterako transitzioan, eta orekatua lurralde antolaketaren ikuspegitik, non espazio publikoa elkargune eta bizileku izango den, kultura, aisia nahiz kirol egitasmoen plaza.*

#### • EKONOMIA:

*Tolosak saretutako ekonomia aktiboa izango du, berezkoak dituen baliabideak indartuz eta errespetatuz, egitasmo berriei bultzada emango diena; sektore desberdinen arteko elkarlanaren bitartez, garapen ekonomiko iraunkorra bermatu eta eskualdeko mugetarik haratago zabalduaz.*

Saio desberdinetan ideiak jaso eta modu partekatuan forma eman zaie, mahai sektorialaren egituraketari jarraituz



# 5 ARGAZKI PARTEKATUA

## • NOLA OSATU DA ARGAZKIA?

Atal bakoitzaren argazki partekatua osatzeko jarraian zehazten diren pausuak eman dira:



## • FITXEN EGITURA

Jarraian diagnostikoa osatzen duten fitxen egitura azaltzen da, zeina 3 atal nagusitan banatzen den:

### HAU DA TESTUINGURUA

*Fitxa bakoitzean landuko diren gaien testuinguruaren aurkezpena egiten da atal honetan, udalaz gainera erreferentziarako informazio esanguratsuari buruzko informazioa jasoz.*

### HAUEK DIRA DATUAK

*Atal honetan gai eremu desberdinen inguruan Tolosako gaur egungo egoera islatzen da datu, grafiko eta abarren bidez. Tolosako datuez gain, udalaz gairako datuak ere jasotzen dira eskuragarri dauden heinean, konparagarritasuna erraztuz.*

### HERRITARREK DIOTENA

*Herritarren iritzi eta ekarpenak jasotzen dituen kapitulua da. Bertan herritarrek ekainean Topagunean egin ziren saio presentzialetan parte hartu zuten herritarren ekarpenaz gain, posta elektronikoaren edo internet bidez egin diren ekarpenak ere jaso dira.*



Jarraian, atal bakoitzaren argazki partekatua aurkezten da, non herritarrek zein udal teknikari eta politikariren ekarpenak batu diren. Dokumentuaren amaieran eremu bakoitzeko ondorio nagusiak aurkezten dira,

non hurrengo faseetara begira kontuan hartu beharreko ildo nagusiak jasotzen diren, udalerraren erronka nagusiak definitzeko abiapuntua izango direnak.





Pertsonak

# 1 HAU DA TESTUINGURUA

**Tolosa udalerria Tolosaldea eskualdeko hiriburua da**, eta baita bertako herri populutsuena 18.993 biztanleekin, hau da, eskualdeko %39. Udalerriko **biztanleria nahiko gaztea dela esan daiteke**, biztanle talde handiena 15-44 urte bitartean kokatzen baita; hala ere, aipagarria da biztanleen %20k inguru 65 urtetik gora dutela.

Adinarekin lotuta, biztanle adintsuen kopurua gora doa Tolosan, eta horren ondorioz, gaixotasunaren eraginez menpeko bihurtu direnekin batera, mendetasun egoeran dauden pertsonak gero eta kolektibo handiagoa osatzen dute udalerrian. Egoera horrek eragin izugarria izango du udalak eskaintzen dituen gizarte zerbitzuetan, premia eta, horren ondorioz, eskariak handitu egingo baitira. Premia eta eskari horiei erantzuteko bitartekoak badaude Mendetasun legean aurreikusita, baina oraindik badago hobetzeko tarterik: itxaron zerrendei aurre egiteko, laguntza teknikoak denboraz eskaintzeko, atsedeen-egonaldiak plaza falta,...

Adinarekin lotuta, biztanle adintsuen kopurua gora doa Tolosan, eta horren ondorioz, mendetasun egoeran dauden pertsonak gero eta kolektibo handiagoa osatzen dute udalerrian.

Mendetasunarekin batera, gizartetik baztertua edo baztertzeko arriskuan dauden egoerak gero eta gehiago sumatzen ari dira Tolosan eta, honekin lotuta, pobrezia egoeran dauden pertsonen/familien profila

eta laguntza-mota eskaera aldatu da krisiaren ondorioz, **Eusko Jaurlaritzaren Gizarteratze Aktiboko III. Euskal Planean (2012-2016)** aurreikusten den bezala. Aldaketa horri behar bezala erantzuteko pobrezia egoera sakontasunez aztertu behar da, eta horregatik udalak ikerketa bat egiten ari da eremu horretan.

Mendetasunarekin lotuta, emakumeak dira zaintza-lanetan ari direnak batik bat. Horrek gizarte zerbitzuetan eragina izango du ere.

Baita, mendetasunarekin lotuta, aipatu behar da ere emakumeak direla zaintza-lanetan ari direnak batik bat. Horrek gizarte zerbitzuetan eragina izango du ere, etengabeko zainketa-lanetan jarduten duten eta lan horietan urte asko daramaten –enplegurik izan gabe– emakume zaintzaileek laguntza gero eta handiagoa beharko baitute, bai eta erreleboa ere, haiek ere adineko bihurtu eta mendetasun-egoeran dauden kasuetan.

Hala ere, emakumearen egoera mendetasunaz harago doa Tolosan, eta horrela ulertu zuen Udalak, **emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plan (2015-2020)** abian jartzerakoan. Plan horretan berdintasun udal politika zuzenduko duten lau ardatz zehazten dira: (1) Genero-zeharkakotasuna kulturen eta udal-gobernuan; (2) Emakumeen partaidetza soziopolitikorako jabetzea; (3) Zainketen ekonomia eta bizitzaren iraunkortasuna; eta (4) Indarkeria matxistatik gabeko ingurunea.

Eusko Jaurlaritzako Haurren eta Nerabeen Behatokiak argitaratutako EAEko haur eta nerabeei buruzko diagnostikoan (2011) aipatzen denez, aisiako eta astialdiko jarduerak, azken urte hauetan, kontsumora bideratu dira, autokudeaketa eta sortzeko gaitasunaren garapena dakarten kultura-jardueren kaltetan. Beraz, **kultura-kontsumoko jarduerak sustatu ordez kultura sustatzea proposatzen da** diagnostikoan, tokiko esparrutik eta dohainik, kultura ahalik eta eskuragarriena izan dadin.

Hainbat azterlanetan nabarmentzen da kolektibo honentzat (haurrak eta nerabeak) oso garrantzitsuak direla elkarrekin harremanak eta loturak ezartzeko guneak, eta ikuspegi horretatik abiatuta, diagnostikoak aipatzen du egokia dela kolektibo horren premiak kontuan hartzea hirien hirigintza-plangintza

egiterakoan, nahitaezkoa baita haurren eta nerabeen aisiarako leku ireki egokiak eta seguruak jartzea. Ere mu horretan kokatuko litzateke espazioen beharra Tolosan, haurrek jolasaren bitartez euren sormena garatzeko aukera izan dezaten.

Tolosako gazteen egoerari dagokienez, joerak eta erronkak identifikatzeko **Gazteen Euskal Behatokiak egindako III. Gazte Plana 2020** har daiteke oinarritzat, non gazteriaren arloko euskal estrategia zehazten baita. Plan hori bi ardatz nagusi ditu: (1) emantzipazioa eta autonomia, non hezkuntza, enplegua eta etxebizitzarekin lotutako helburuak zehazten baitira; eta (2) bizi kalitatea eta gizarte kohesioa, non osasuna, gizarte ekintza, kultura, aisialdia, kontsumoa eta mugikortasun iraunkorraren eremuak lantzen baitira.


Aisiako eta astialdiko jarduerak, azken urte hauetan, kontsumora bideratu dira, autokudeaketa eta sortzeko gaitasunaren garapena dakarten kultura-jardueren kaltetan



# 2 HAUEK DIRA DATUAK


## • BIZTANLERIAREN EZAUGARRITZEA

BIZTANLERIAREN BILAKAERA




Tolosako biztanleriak Tolosaldean duen pisua eskualdeko biztanle guztien %39 da, beraz, bere 18.993 bizilagunekin, eskualdeko herririk populutsuena da; generoaren banaketari dagokionez, emakume eta gizonen arteko proportzioa nahiko orekatua da (%48,2 eta %51,8, hurrenez hurren).

BIZTANLERIA SEXUAREN ARABERA



Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-errodaren Estatistika.

Biztanleria-dentsitatea nabarmena da udalerrri honetan (514 biztanle/km<sup>2</sup>), Gipuzkoako batez bestekoa baino handiagoa baita (376 biztanle/km<sup>2</sup>). Zentzu honetan aipatzekoa da Tolosako biztanleria azken urteotan gehituz joan dela etengabe; zehazki, 2010etik 2015era %5,3a hazi da. Goranzko joera hori nabariagoa da Tolosaldea Eskualdeak (% 3,3) eta Gipuzkoak (% 1,4) oro har adierazi duten hazkundearekin alderatuz.



Biztanleriaren adin-piramide osoari erreparatuta, bai Tolosako bai Lurralde Historiko osoko batez bestekoak nahiko berdintsuak dira adin-tarte nagusi guztietan; kasu bietan biztanle talde handiena 15-44 urte bitartean kokatzen da. Adin-tarte horretan kokatzen da ere amatasun indizea (15-44 urte bitarteko emakumeen pisua, ugaltze-adinean daudenak); ikus daitekeenez, indize hori baxua da, hortaz, datozen urteetan jaiotze-tasak murriztagoak izatea ekar dezake horrek, batez ere kontuan hartuta 35 urtetik gorako emakumeek egun duten pisua adin horretatik beherakoek dutena baino nabarmen altuagoa dela (%34,5 eta %17,4, hurrenez hurren).

*Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-errolaren Estatistika.*



## • BIZTANLERIA ATZERRITARRA

Biztanle atzerritarrei dagokienez, gaur egun 1.144 pertsona atzerritar daude errolatuta Tolosan, hau da, biztanle guztien %6. Kopuru hori Gipuzkoak bere osotasunean erregistratzen duenaren azpitik kokatzen da (%6,5). Generoaren arabera, emakume eta gizon atzerritarren proportzioak oso berdintsuak dira Tolosan, talde bien arteko aldea ez baita ehunekoazko puntura heltzen (%50,3 eta %49,7, hurrenez hurren); alde hori, aldiz, puntu eta erdikoa da Gipuzkoan, gizonen aldekoa kasu honetan.

	BIZTANLERIA ATZERRITARRA SEXUAREN ETA JATORRIZKO LURRALDEAREN ARABERA						
	Espainiarra	Europako Batasuna	EBetik kanpo	Afrika	Amerika	Asia	Ozeania eta aberrigabeak
Tolosa	94,0%	1,4%	0,5%	1,6%	2,0%	0,5%	0,00%
emakumeak	94,2%	1,1%	0,5%	1,2%	2,6%	0,3%	0,00%
gizonak	93,8%	1,6%	0,5%	2,1%	1,4%	0,6%	0,00%
Gipuzkoa	93,5%	1,9%	0,3%	1,5%	2,1%	0,7%	0,01%
emakumeak	93,7%	1,6%	0,3%	1,1%	2,7%	0,5%	0,01%
gizonak	93,3%	2,1%	0,2%	1,9%	1,6%	0,9%	0,02%

*Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-errolaren Estatistika.*

Biztanle atzerritar hauek batez ere Marokotik (%18), Errumaniatik (%11,5), Ukrainiatik (%8,0), Portugaletik (%7,9), Amerikatik (%33,0) eta Afrikatik (%7,7) datoz.




Biztanle atzerritar kopuruaren bilakaerari erreparatuta, 2012. urtetik geroztik ehunekoak mantendu da %6,5ean Tolosan; Gipuzkoa mailan, aldiz, kopuruak goranzko joera adierazi du azken urteetan. Generoaren arabera, Tolosako emakume atzerritarren kopuruak behera egin du 2013tik geroztik; gizon atzerritarrek, aldiz, azken urteetako ehuneko altuena erdietsi dute 2015ean.

*Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-errolaren Estatistika.*

## • MENDE TASUNAK ETA HIRUGARREN ADINA


### Haur, zahartze eta gainzahartze indizeak

Aurretik adierazitako adin-piramideak erakusten duenez, Tolosako biztanleen % 14,7k 14 urtetik behera dute, eta % 21ek 65 urtetik gora dute. Ildo horretan, belaunaldiaren hazkundera eta ordezkapenera eta gizarte-zerbitzuek eskaintzaren geroko premietan eragina duten hainbat adierazle daude: haur indizea, zahartze-indizea eta gainzahartze-indizea.




Indize horiek kontuan hartuta, batez bestekoak nahiko berdintsuak badira ere, Tolosako biztanleria eskualdekoa baino gaztexeagoa dela ikus daiteke, Gipuzkoako batez bestekoa ez bezala. Zahartze eta gainzahartze indizeei dagokienez, Tolosak eta Lurralde Historikoak antzeko kopuruak adierazten dituzte (% 21 eta % 10 inguru, hurrenez hurren); Tolosaldean, aldiz, 65 eta 75 urteko gorako biztanle kopurua handiagoa da beste bi lurralde-eremutan baino.

*Iturria: Udalmap.*






Haur eta zahartze-indizeek azken urteetan izan duten bilakaerari erreparatuta, indize biek goranzko joera adierazi dutela ikus daiteke. Bi kasutan hazkundera nahiko motela izan bada ere, badirudi zahartze-indizearen kasuan pixka bat azkarragoa izan dela. Horrela, aurreko urteetan bi indize horien arteko aldea 5 punturen inguruan kokatu bada ere, gaur egun alde hori 6 puntutik gora kokatzen da, eta zahartze-indizea haur indizea baino askoz ere handiagoa izateak arazoak ekar ditzake belaunaldi-ordezkapenean. Generoaren arabera, datuek erakusten dute emakumeek gizonek baino gainzahartze-indizea handiagoa dutela, agian haien bizi-itxaropena luzeagoa delako. Hala ere, azken urteotan indizea berdintsu mantendu da kasu bietan, jaitsiera arina sumatuz azken urtean.

*Iturria: Udalmap.*



## Mendekotasuna

Mendekotasunezko adinetan (0 eta 19 urte bitartean eta 65 urtetik gorakoak) dauden pertsonen kopuruaren eta “ekonomikoki produktiboak” (20 eta 64 urte bitartekoak) direnen arteko harremana adierazten du mendekotasun demografikoaren indizeak.



Ekonomikoki dependienteak diren biztanle tolosarrek produktiboak diren biztanleei dakarkieten zamak gora egin du azken urteetan, eta horrek eragina eduki dezake hainbat arloetako (hezkuntza, osasuna, gizarte-gastuak,...) aurrekontu-aurreikuspenetan. Lurraldeko batez bestekoarekin alderatuta, 2015ean tolosarren zama hori pixka bat handiagoa dela ikus daiteke (%66,8 eta %69,4, hurrenez hurren). Indize hori handiagoa da emakumeen kasuan gizonenena baino, eta are gehiago Tolosan Lurraldean baino.


*Iturria: Udalmap.*

Tolosako Udalak 68,73 € gastatu zuen Zerbitzu Sozialetan biztanle bakoitzeko 2013an. Horrek suposatzen du %12ko igoera aurreko urteko zenbatekoarekiko, hau da, ia 8 € gehiago.

*Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuetako Gastuaren Azterketa.*




MENDEZASUN-PRESTAZIO EKONOMIKOAK



2015ean mendetasunarekin lotutako prestazio ekonomiko baten titularren proportzioa %2,51ekoa zen Tolosan, eskualde eta lurralde mailako batez bestekoen gainetik kokatuz. Proportzio hori handituz joan da urteen poderioz, 2015ean azken bost urtetako ehuneko handiena erdietsiz. Sexuaren arabera, mendetasun-prestazioak ekonomikoaren estaldura hori altuagoa da emakumeen artean (% 3,1) gizonen artean baino (% 1,88).


*Iturria: Gizarte Politikako Departamendua. Gipuzkoako Foru Aldundia.*

MENDEZASUN-TASA 65 URTE ETA GEHIAGO DUTEN PERTSONEN ARTEAN



Tolosarren mendetasun-tasa oro har %4,7koa da, hau da, eskualde (%4) eta lurralde (%3,8) mailakoak baino altuagoa. 65 urte eta gehiago dituzten tolosarren %17k I, II edo III mendetasun-gradua zuten 2015eko abenduaren 31n. Batez besteko hori eskualdekoa eta lurraldekoa baino altuagoa da. Mendetasun-tasa hori jaitsi zen 2011-2013 urte bitartean, baina harrezkero gora egin du, adina eta gaixotasuna dela eta, igoera hori % 8koa izan delarik azken urtean. Mendetasun-tasa askoz ere txikiagoa da 18-64 pertsonen artean, logikoaenez. Hala ere, bilakaerari erreparatuta, 2013tik geroztik tasa hori % 19 hazi da.


MENDEZASUN-TASA 18-64 URTE BITARTEKO PERTSONEN ARTEAN



	MENDEZASUN-TASA SEXUAREN ARABERA			
	65 urte eta gehiago		18-64 urte bitartean	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
2011	19,60%	12,06%	1,17%	1,57%
2012	18,52%	11,83%	1,10%	1,49%
2013	19,24%	11,48%	1,09%	1,49%
2014	19,07%	11,66%	1,13%	1,64%
2015	20,75%	12,35%	1,26%	1,81%

Generoaren arabera, mendetasun-tasa handiagoa da 65 urte eta gehiagoko emakumeen artean adin horretako gizonen artean baino, baina 18-64 urte bitarteko pertsonen kasuan alderantzizkoa gertatzen da: adin tarte horretako gizon dependienteen proportzioa emakumeena baino handiagoa da.

*Iturria: Gizarte Politikako Departamendua. Gipuzkoako Foru Aldundia.*



Gizarte zerbitzu guztietan erabiltzaile kopurua handituz joan da denboraren poderioz, pertsona adinduen egoitza-zentroak eta pertsona ezgaituen eguneko zentrokoak izan ezik.

2015eko datuak hartuta, aipatu gizarte zerbitzuen erabiltzaile kopuruetatik ehuneko handiena emakumei dagokie bai adinduen bai ezgaituen artean, ezgaituen egoitza-zentroetan izan ezik; hemen, 4 erabiltzailetatik 3 gizonak dira.

Alokairua da etxebizitza edukitzeko gazteek nahiago duten erregimena




GIZARTE ZERBITZUETAKO ERABILTZAILE ADINDUEN/ EZGAITUEN KOPURUA, SEXUAREN ARABERA (2015)

	Erabiltzaile kopurua	
	Emakumeak	Gizonak
<b>Erabiltzaile adinduak</b>		
Egoitza-zentroak	68,5%	31,5%
Eguneko zentroak	80,6%	19,4%
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	75,0%	25,0%
ETXETEK laguntza teknikoaren onuradunak	67,5%	32,5%
Telelaguntza zerbitzuaren onuradunak	79,4%	20,6%
<b>Erabiltzaile ezgaituak</b>		
Egoitza-zentroak	25,0%	75,0%
Eguneko zentroak	66,7%	33,3%

Iturria: Gizarte Politikako Departamendua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

HAINBAT GIZARTE ZERBITZUETAKO ERABILTZAILE EZGAITUEN KOPURUAREN BILAKAERA (12/31n)



## • EMAKUMEA ETA BERDINTASUNA

Tolosako Udalak *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikotik abiatuta, udalerrirako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana* egin du. Plan horrek udalak eremu horretan 2015-2020 epean landuko dituen ardatzak zehazten ditu: (1) Genero-zeharkakotasuna kulturaren eta udal-gobernuan; (2) Emakumeen partaidetza soziopolitikorako jabetzea; (3) Zainketen ekonomia eta bizitzaren iraunkortasuna; eta (4) Indarkeria matxistarik gabeko ingurunea.

Emakumearen egoera zeharka tratatu da txosten honen atal ezberdinetan, beraz, ez errepikatzearren, atal honetan aukeratutako adierazle espezifiko batzuk aipatuko dira soilik.

### Biztanleria aktiboaren bilakaera

Jarduera tasak erakusten du lanerako adinean dauden eta lanean edo lana bilatzen ari diren biztanleen partaidetza, ehunekotan, biztanleria osoan.

BIZTANLERIA AKTIBOAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA

	Emakumeak		Gizonak	
	Biztan. Aktiboak	Biztan. Inaktiboak	Biztan. Aktiboak	Biztan. Inaktiboak
2006	%40,0	%60	%53,2	%50
2010	%42,0	%58	%52,0	%48
2011	%43,6	%56	%51,5	%49

Iturria: Udalmap.

Horrela, aztertutako urte guztietan gizonen jarduera tasa % 50etik gora kokatzen da eta biztanle ez-aktiboen tasa baino handiagoa da; emakumeen kasuan, aldiz, ez dira ehuneko horretara iristen eta haien jarduera tasa % 40aren inguruan mantentzen da. Bilakaerari erreparaturaz, emakumearen jarduera tasak gora egin ahala gizon aktiboen kopurua behera doa.

Emakumea lan-merkaturatzeak eragin izugarria izan du hainbat alderditan: menpekoen zaintzan, BPG-ri egiten dioten ekarpenean,...

Lanaren egungo kontzeptzioak enplegu ordaindua hartzen du kontuan soilik, eta horrek ikusezin bihurtzen du batik bat emakumeek egindako lan erreproduktiboa (haurdunaldia, erditzea, edoskitzea, eta, azken finean, gizadiaren bizitza eta iraupenerako behar diren zaintzak): lan eta funtzio horiek espazio pribatuan geratzen dira, eta lan-merkatuaren egungo nomenklaturan langabezia gisa tratatzen eta sailkatzen dira.

**BATEZ BESTEKO DENBORA PARTE-HARTZAILEAREN, JARDUERAREN ETA SEXUAREN ARABERA TOLOSAKO ESKUALDEAN (oo,mm) (2013)**

JARDUERAK	Tolosako eskualdea		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Fisiologi beharrak (jatea, lo egin,...)	11,46	11,33	11,55
Lana eta prestakuntza	6,29	7,33	5,39
Etxeko lanak	2,32	1,5	3,01
Etxeko lagunez arduratzea	2,04	1,13	2,39
Gizarte-harremanak	1,2	1,14	1,25
Aisi aktiboa eta kirolak	2,04	1,57	2,11
Aisi pasiboa	3,02	3,12	2,55
Joan-etorriak	1,33	1,42	1,26

Emakumeek ugalketako lana jokatzeko duten rola garrantziaz argi geratzen da denboraren erabilera aztertzerakoan. Horrela, ikus daiteke emakumeak direla etxeko lanaz eta etxeko lagunez arduratzen direnak nagusiki, jarduera horietan gizonak baino denbora luzeagoa ematen baitute.

*Iturria: Denbora aurrekontuen inkesta. Eustat, 2013.*

**12/31 FAMILIA-INGURUNEN ZAINZARAKO PRESTAZIO EKONOMIKOAREN (FIZPE) PERTSONA TITULAR KOPURUA, SEXUAREN ARABERA (2015)**

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Tolosa	139	208	347
Tolosaldea	321	478	799
Gipuzkoa	4.035	6.362	10.397


Tolosan, familia-inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoaren titularren % 60 emakumeak dira; kopuru hori berdintsua da eskualde zein lurralde mailan. Tolosako emakume zaintzaileen adina zehatz-mehatz ezagutzeko informazio-iturririk ez dugu topatu.

*Iturria: Gizarte politikako Departamendua (GFA).*



## Okupazioa

**Okupazio tasa** lanean ari diren pertsonen partaidetza da, ehunekotan, 16 urteko eta gehiagoko biztanleria osoan.



**Gizon eta emakumeen okupazio-tasaren** ehunekoen arteko aldea jaitsi egin da azken urteetan. Zehazki, datuak eskuragarri dauden azken urtean (2011) % 45 murriztu zen alde hori aurreko urtearekiko (2006), eta ehuneko hori % 64ra iristen da duela hamar urteko egoerarekin alderatuz.

*Iturria: Udalmap.*

Lanbiden erregistratutako emakume langabetuen kopurua %10,8 da; gizonen ehunekoa, aldiz, %8,7.

## • EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

### Salaketak

ERTZAINZAK JASOTAKO SALAKETAK

	2009	2010	2011	2012	Guztira
Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria	18	15	13	12	58
Familia barruko indarkeria (bikotekide/bikotekide ohiak eragindakoa izan ezik)	2	-	3	4	9
Sexu-askatasuna	4	1	1	3	9
Guztira	24	16	17	19	76


2009-2012 aldian zehar, emakume baten bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako **tratu txar**erengatiko salaketak genero-indarkeriagatik jasotako salaketen gehiengoak dira: % 75 2009an, % 94 2010ean, % 76 2011n, eta % 63 2012an.

**Familia barruko indarkeriagatik** eta sexu-askatasunaren aurkako delituengatik salaketek antzeko ehunekoa dute aldi osoan, % 12.

*Iturria: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoa 2015-2020.*




## • BAZTERKERIA ETA POBREZIA



Krisia hasi zenetik hona, **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta** jasotzen duten tolosarren kopuruak %37 egin du gora. Azken urtean, igoera hori % 1ekoa izan da.

*Iturria: Udalmap.*

Bi izan dira igoera hori nabariagoa izan den uneak: krisiaren hasieran (2010etik 2011ra %15 egin zuen gora) eta 2013an izandako gorakada (%12rainokoa), Euskadin jasandako krisiaren une larrietarikoarekin bat etorritik. DBE jasotzen duten emakume kopurua gizonena baino %3 handiagoa da. Hala ere, emakume onuradunen kopurua %1 jaitsi da azken urtean. Gizonen kopurua, ordea, %3 igo da.




Krisialdiaren hasieratik hona % 19 hazi da Gizarte-larrialdiko laguntzak jasotzen dituzten familia kopurua. Hazkunde horrek 2014an erregistratu zuen haren punturik gorena: % 23 igo zen aurreko urtearekiko. Azken urtean, aldiz, laguntza hori jasotzen duten familia kopurua % 9 jaitsi da.

*Iturria: Udalmap.*

Bazterkeriari aurre egiteko hainbat baliabide jartzen dituzte eskura bai Gipuzkoako Foru Aldundiak (Elkar-Ekin programa, esate baterako) bai Tolosako Udalak (ABEGI Aterpetxea, adibidez). Horrez gain, beste erakunde batzuk kudeatzen dituzten baliabideak daude ere (LANBIDEk kudeatzen duen Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta, adibidez). Ekonomikoki ahulagoak diren kolektiboak laguntzea da helburua.

GIZARTERATZEKO EGOITZA ETA EGUNEKO ZENTROETAKO ERABILTZAILIEN KOPURUAREN BILAKAERA




Gizarterako egoitza-zentroetako erabiltzaile kopurua oso aldakorra izan da Tolosan; agian horrek eskura jartzen diren plaza kopuruarekin zerikusirik eduki ditzake. Eguneko zentroetako erabiltzaileen kasuan, azken hiru urtetan kopuruak gora egin duela ikus daiteke. Erabiltzaile guztiak gizonak izatea emakumeentzako mota horretako plazen ezarekin lotuta egon daiteke.

*Iturria: Gizarte Politikako Departamendua. Gipuzkoako Foru Aldundia.*

## • HAURRAK, NERABEAK ETA GAZTEAK

TOLOSAKO BIZTANLE GAZTEAK, ADIN TARTEAREN ARABERA (2015)




Gazteek Tolosako biztanleen %30 osatzen dute. Hau da, 30 urtetik beherako 5.800 pertsona bizi dira Tolosan. Horietatik talde handiena hurrek osatzen dute (%43); ondoren gazteak kokatzen dira (%41); eta gainerakoak nerabeak dira (%16, talde txikiena).

*Iturria: EIN.*

### Ekipamenduak


Nerabeei zuzendutako udal ekipamendua Topagunea da. Zerbitzu honetaz gain, nerabeei zuzenduta egiten diren jarduerak udako programak, gabonetako programa, prebentzio mahaia eta abar dira. Honetaz gain, gazteek Gaztetxea, gazte lokalak, sorkuntzarako espazioak eta entsegu lokalak dituzte baita ere haien asmo eta jarduera burutzeko. Haurrentzako, aldiz, ez dago ekipamendu espezifikorik Tolosan.



Ekipamenduei begira, Tolosak 5,5 haur hezkuntzako unitate eskaintzen ditu 100 biztanleko, hau da, Tolosako Haurreskoletan haur hezkuntzarako udaleko zentroetan edo haur hezkuntzako gainetarako zentroetan 5,5 ikastalde (ikasle gela) daude 0-2 urte bitarteko 100 biztanleko. Kopuru hori egonkor mantendu da azken urteetan, 0-2 urte bitarteko biztanle kopuru bezala. Antzeko biztanle kopurua duten herriekin alderatuz (Hernani eta Lasarte-Oria), Tolosak ratio hobetoak erakusten ditu mota honetako ekipamenduei dagokienez.

*Iturria: Udalmap.*

Hala ere, hezkuntza araututik kanpo ez dago haur txikiei espresuki zuzendutako beste asialdirako ekipamendurik Tolosan.



Grafikoak erakusten duenez, 0 eta 14 urte bitarteko mila biztanleko 8 umeen jolaserako gune publiko inguru daude. Azken urteetan Tolosan ratio hori berdintsu mantendu bada ere, beherazko joera azaltzen du. Antzeko biztanle kopurua duten herriekin alderatuz, Tolosak adierazten duen ratioa baxua dela esan daiteke.

*Iturria: Udalmap.*


### Gazteei buruzko hainbat adierazle

Ez da posible izan Tolosa mailan hainbat adierazleri buruzko informazioa eskuratzea. Hala ere, euskal gazte-riaren egungo joerak nondik doazen jakiteko EAE mailako hainbat datu erabil daitezke. Ondorengo paragrafoetan, informazio hori aipatuko da.




Horrela, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak argitaratutako Biztanle gazteak eta etxebizitza beharra EAE-n txostenean aipatzen da 18-34 urte bitarteko euskal biztanleen %15ek lehen etxebizitza eskuratzeko beharra dutela. Etxebizitza babestua da gazte gehienek premia hori asetzeko aukeratzen dutena. Bestalde, alokairua da etxebizitza edukitzeko gazteek nahiago duten erregimena.

Gazteen Euskal Behatokiak egindako estatistiken arabera (azken datuak 2013), 18-34 urte bitarteko gazte gipuzkoarren %45,3 jatorrizko etxebizitzatik kanpo bizi da, hau da, emantzipatu da. Emantzipatutako gazte horietatik %8,3 jabetzako babes ofizialeko etxebizitza batean bizi dira; %10,7, aldiz, alokairu sozialeko etxebizitza batean bizi dira. 4 gazte emantzipatuetatik batek adierazi du etxebizitzako gastuak (alokairua, hipoteka, ura, argia,...) ordaintzeko zailtasunak dituela.



16-24 urte bitarteko gazteen % 20,28 lanean ari zen 2011n. Bilakaerari erreparatuta, gazteen okupazio-tasak beheranzko joera adierazten du aztertutako epe horretan.

*Iturria: Udalmap.*



Krisiaren urteetan Segurantzako Diruzaintza Nagusian afiliatutako gazteen proportzioa ia 6 puntu jaitsi zen. Hala ere, joera hori aldatu eta 2014an igoera adierazgarria nabaritu zen.

*Iturria: Udalmap.*



---

# HERRITARREK DIOTENA

---

pertsonak

---

Herritarrek erabilera anitzeko ekipamenduak eta espazio irekien beharra sumatzen dute, non haurrek jolasaren bitartez euren sormena garatzeko aukera izan dezaketen eta, orokorrean, adin tar- te ezberdinekoek aisialdirako espazio eta eremu ezberdinak disfrutatu dezaketen. Honekin lotuta, aisialdirako eskaintza anitzagoaren falta botatzen da, adin guztientzako egokituta eta eragi- leen inplikazio zuzena bultzatuko lukeena.

---

Gazteek eta 3. adinakoek paper aktiboa izan behar dute gizartean eta, horretarako, euren parte hartzea bultzatu beharko litzateke, belaunaldi ezberdinen arteko trukea sustatuz eta, aldi be- rean, beste jatorrietako eta ezintasun ezberdinak dituzten pertsonen integrazioa kontuan hartuz.

---

Egoera larrietan dauden herritarrak daude eta errealitate hau ezagutzeko sentsibilizazio lana egiteko beharra dago, batez ere gazteekin. Mota ezberdinetako laguntzak eskaintzen zaizkie, ez soilik presta- zio ekonomikoak, nahiz eta orokorrean Gizarte Zerbitzuak diru laguntzen kudeatzaile hutsak bezala ikusten diren. Honen harira, ondoko galdera azaleratzen da: diru laguntzak jasotzen duten herritarrei kontra-prestazio bat eskatu behar al zaie?

“Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezagutaraztea beharrezkotzat jotzen da”



“Erabilera anitzeko ekipamenduak eta es- pazio irekien beharra sumatzen dute”

---

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezagutaraztea beharrezkotzat jotzen da, parekide- tasunaren eremuan kontzientzia pertsonala eta kolektiboa sustatze aldera, gizonak eta gazteak be- reziki kontuan izanik. Oso garrantzitsua da eragile ezberdinen inplikazioa lortzea, konplizitateak bila- tuz. Honez gain, emakumeentzako erreferente izan daitekeen gune bat izatearen beharra azaltzen da eta, honekin lotuta, baita esparru honetan udalak egiten duenari proiektzioa ematearena ere.



---

# ALDERDIEK DIOTENA

---

pertsonak

---

Gizartearen balore partekatuak indartu eta elkartasunean oinarritutako gizartea sustatu beharko litzateke. Belaunaldi ezberdinen arteko harremanak eta gazteen elkartegintza eta partaidetza bultzatzeko beharra dago, horretarako espazio publikoaren berreskurapenari heldu beharko litzaiokeelarik.



“Tolosako komunitate anitzaren beharrak asetzen dituzten ingurune (espazioak, zerbitzuak eta aisialdirako aukerak) inklusiboak sortu behar dira”

---

Tolosako komunitate anitzaren beharrak asetzen dituzten ingurune (espazioak, zerbitzuak eta aisialdirako aukerak) inklusiboak sortu behar dira, bai emakumeak, bai gizonak, bai beste kolektiboak elkarrekin berdintasunaren alde lan egin dezaten eta espazio publiko guztiak propio bezala uler eta sentitu ditzaten. Berdintasun irizpideak bai herri antolaketan, bai segurtasun eta mugikortasun politikan indartu behar dira tolosar guztiak kaleetan eta euren etxeetan seguru sentitu daitezen. Eta honekin batera, emakumeentzako espazio propio baten beharra aztertu beharko zen.

“Gizarte zerbitzuetatik eskaintzen diren laguntzak eta zerbitzuen inguruko informazioa ezagutzera eman beharko litzateke”



---

Herritar orori oinarrizko zerbitzuak ziurtatu behar zaizkie, etxebizitza eskubidea bermatzeko bidea jorratzea eta tolosarrak euren etxean modu duinean bizitzeko aukera ziurtatu. Horretarako, gizarte zerbitzuetatik eskaintzen diren laguntzak eta zerbitzuen inguruko informazioa ezagutzera eman beharko litzateke, baita pobreziaren aurka egiten den lana ere. Honekin batera, jangela sozialaren berregokitzapena egiteko beharra azpimarratzen da, honekin duen helburu soziala indartzuz.



Kultura eta  
Hezkuntza

# 1 HAU DA TESTUINGURUA

Udalerrien kultura-garapenari ekiteko hirien eta gobernuen arteko konpromisoaren oinarriak ezartzearen aldeko apustua egiten du Kulturaren Agenda 21ek. Horretarako, kulturak oinarritzat hartzen dituen hiru kontzeptu nagusi ezartzen dira: adierazmena, heldzea eta partaidetza.

Sozietate zibilaren eta erakundeen arteko topagune gisa ari diren kultura-ekipamenduen sarearen bitartez, hurbiltasuneko kultura-politika garatzen du Tolosako udalak. Kulturara heldzea, pertsonen adierazpenguaitasunak eta partaide izatearen zentzua sustatzea da politika horren helburu nagusia. Kulturara heldzeko berma, komunitate osoari zerbitzuak eta programak eskaintzen dizkion kultura-eskaintza anitza eta zabalaren bitartez bideratzen da. Hiritarren gaitasun edo adierazgarritasun sortzailea sustatzeko, kultura-praktika laguntzeko behar diren bitartekoak (tailerrak, ikastaroak,...) eskura jartzen dizkie udaleko kultura sailak hiritarrei. Azkenik, Tolosak hiritarren partaidetza bultzatzen du tokiko asoziazionismoaren bitartez, kulturaren garapenean protagonismoa emanez eta udalez kanpoko eragileen kultura-eskaintza integratuz.

**Kulturara heldzea, pertsonen adierazpenguaitasunak eta partaide izatearen zentzua sustatzea da politika horren helburu nagusia.**

Hizkuntza politikari dagokionez, bi erreferentzia-eremu ditu Tolosako Udalak hizkuntza normalkuntzaren arloan:

- **Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2015-2019:** gizarte-esparru guztietarako hizkuntza politika zabala-

goa eta orokorragoa ezartzen du. Plangintza horren arabera, euskararen normalizazio prozesuan, euskara gizarte-harremanetan ohiko hizkuntza bilakatzea da udalaren helburua. Horretarako, euskararen erabilera hartu da ardatz eta hori sustatzeko eta sendotzeko bitartekoak jarriko ditu udalak.

- **Tolosako Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatze Plana 2013-2017:** udal barruko hizkuntza politika finkatzen du. Euskara planaren helburu nagusia da udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntz eskubideei erantzun ahal izateko. Helburu nagusi hori lortzeko ondorengo lan-ildoak jarraitzea proposatzen du planak:

- *Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu hizkuntza izan dadin bermatzea, betiere herritarren hizkuntz eskubideak errespetatuz.*
- *Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza izan dadin bermatzea.*
- *Euskara administrazio barneko lan hizkuntza izan dadin bermatzea.*

Horrez gain, Euskal Herriaren berezko hizkuntza sustatzeko helburu duen Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) partaidea da Tolosako udala.

Kirolari dagokionez, horrek gizartearen duen garrantzia argi adierazten da Eusko Jaurlaritzaren Kirolaren 2003-2007 Planean, gizarte-jarduera gisa lagungarri delako pertsonen prestakuntza eta garapen integrala lortzeko eta norbanakoaren eta gizartearen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko. Kirola, gainera, gero eta gehiago da, gure gizartearen, aberastasun eta enplegu sortzaile eta,



gizartearen kohesioa handitzeaz gain, herrialde garatu baten irudia indartzen du.

Plan horrek Kirolaren Euskal Eredua osatzen duten kirolean aritzeko moduak (eskola-kirola, kirola federatua - errendimenduzkoa - eta partaidetzako kirola) eta bakoitzak dituen erronkak zehazten ditu. Hortik abiatuta, Tolosako Udalak haren Kiroletako Plan Estrategikoa 2015-2019 diseinatu du, kirol eredu bakoitzean lortu nahi diren helburuak zehaztuz. Udal kirola-politikaren helburua da kirola egitea ahalbideratzea, etengabeko hobekuntzan inspiratua eta oinarritua, non parte-hartze anitzak, kalitatezko eskaintzak, sentsibilitate ezberdinen islak, errentagarritasun ekonomikoaz beste, giza eta kirol errentagarritasuna ere lortu nahiko lukeena, beti ere, izaera inklusiboa, berdintzalea

eta eraldatzailea duten ekimenak bultzatu eta babestuz. Helburu hori lortzeko udalak dituen bitarteko nagusiak kirol-ekipamenduen sarea eta kirola sustatzeko abian jartzen dituen programak dira.

Azkenik, diagnostiko honetan hezkuntzak duen garrantzia adierazten da, balioen transmisio bide gisa gizartearen eremu guztietan. Horrela, nabarmentzekoa da D hizkuntza ereduak Tolosako hezkuntza-zentroetan duen sendotasuna eta horrek izan duen garrantzia herritarren euskalduntze prozesuan; edo, baita, eskola-kirolean errotu behar diren balioak (begirunea, joko garbia,...) hezkuntza-eremutik hasita landu beharra; eta, azkenik, kulturarekiko sentsibilizazioa haurrengan eta gazteengan pizteko hezkuntza izan behar dela ardatza.

Udalaren helburua da kirola egitea ahalbideratzea, etengabeko hobekuntzaren bidetik

# 2 HAUEK DIRA DATUAK

## Ekipamenduak / azpiegiturak

Ekipamenduen aldetik, dauden azpiegiturak nahikoak dira herritarren premiei erantzuteko, baina hainbat kasutan zaharkituta daude eta horrek berritzea eskatzen du.

### • TOLOSAKO KIROLA-AZPIEGITURAK ETA ERABILERA-MAILA



Bost dira Tolosako kirol-ekipamendu nagusiak:

- **USABAL Kiroldegia:** bazkide kopurua gehitu egin da azken urteetan; Gehikuntza hori %4,5ekoa izan zen 2013an aurreko urtearekiko.
- **UZTURPE Kiroldegia:** 2013-2014 aldian, astero 650 pertsonen batez beste erabili zituzten kiroldegiko instalazioak, hainbat jarduera burutze-ko (soinketa, eskola-kirola, kirola federatua,...).
- **BEOTIBAR Pilotalekua:** 2013-2014 aldian, astero 210 pertsonen batez beste erabili zuten pilotalekua (pilotari profesionalak, pilota-eskola, emakume pilotariak, pilota-elkartea,...).
- **ORIA IBAIA-KAIA:** astero 500 arraunlariak eta 50 arrantzaleak erabiltzen dute kaia, batez beste.
- **BERAZUBI Estadioa**

*Iturria: Tolosako Udalaren Kiroletako Plan Estrategikoa 2015-2019.*

Egin beharreko berritze-lanen artean, Berazubi estadioaren lanak bukatzeaz daude: pilotalekua estaltzea eta gizarte-egoitza berrantolatzea. Usabal kiroldegiari dagokionez, 3. faseari amaiera eman eta inguruneari buruzko proiektuari ekin behar zaio. Beotibar Pilotalekuaren kasuan, birmoldaketari ekin behar zaio, segurtasun planak hainbat egokitzapen egitea eskatzen baitu, baina ez dago horri buruzko proiekturik aurreikusita.

Aipatu azpiegituraz gain, Tolosako ikastoletako eta ikastetxeetako kirola-ekipamenduak kontuan hartu beharko lirateke; horietako batzuk herritarrei oro har irekita baitaude eskolaz kanpoko ordutegian.

## Kultura-azpiegiturak

Tolosan zazpi kultura-ekipamendu nagusi daude:

### • **Antonio M<sup>a</sup> Labaien KULTURA ETXEA:**

tailer askotarikoak antolatzen dira kultura etxean: pintura, ehoziak, zeramika, argazkigintza, ballet, dantza garaikidea, antzerkia,... baita, beste jarduera batzuk kokatzen dira bertan, besteak beste, gazteen topagunea.

• **LEIDOR Antzokia:** 826 besaulki du, hau da, 1.000 biztanleko guztira 48 besaulki. 2014an 36 antzerki edo dantza ikuskizun profesional antzetzu ziren eta 10.918 ikusle hurbildu ziren antzokira.

• **UDAL LIBURUTEGIAK:** liburutegi zerbitzua horrela banatzen da: helduen liburutegia Aranburu jauregian dago; haurren liburutegia ERROTAn dago; auzoetan liburutegi txikiak daude (antena moduan); eta udako liburutegia USABAL kiroldegian antolatzen da.

• **ARANBURU JAUREGIA:** helduen liburutegiaz gain, erakusketak eta udal artxiboa hemen kokatzen dira ere.

### • **Eduardo Mokoroa MUSIKA ESKOLA**

• **ABASTOS:** herriko elkarten egoitzak biltzen dituen azpiegitura da. Egun 14 elkarteek dute hemen haien egoitza.



Iturria: Tolosako Udalaren webgunea.

Hainbat kultura ekipamenduk berritzeko premia adierazten dute: Aranburu Jauregian adibidez, helduen liburutegiak espazio zabalagoa behar du, irisgarritasunaren aldetik moldatu behar da, mantenuarekin lotutako hainbat arazori erantzuna eman behar zaio (hezetasuna,...), eta baita segurtasun arazoei ere. Leidor antzokiari dagokionez, duela hamar urte egin zela azken inbertsioa.

Aipatu azpiegituraz gain, elkarte-eremutik sortutako beste azpiegitura batzuk daude Tolosan. Adibidez, Box A sormen espazioa, non, arte plastiko eta bisualak lantzeaz gain (tailerren bitartez, lan-gunearen bitartez,...), kultura-eskaintza alternatiboa eskaintzen baitaie Tolosako herritarrei. Bonberenea gaztetxea da beste adibide bat; honek kultura-jarduera zabala eskaintzen du ere. TOPIC, CITek kudeatzen duen udal ekipamendua. Egun txontxongiloen munduaren erakuslehi aparta da, baina beste jarduera askoren egoitza ere bada.

### Hezkuntza-azpiegiturak eta erabilera


E.J.-ko Hezkuntza Sailaren menpeko publikoak	Zentro kontzertatuak
Félix Samaniego HLHI	Usabalgo Laskorain Ikastola HLBHIP
Tolosaldea HHI	Arans-Gui HBIP
Orixe BHI	Hirukide Eskolapioak BHIP (DBH eta Batxilerg.)
Tolosaldea LHHI	Tolosako Inmakulada Lanbide Eskola BHIP
Tolosa HEO	Hirukide Gainberri HHIP (Haur eskola)
<b>Beste zentro publiko batzuk</b>	Hirukide Jesuitinak HLHIP (Haur eta Lehen Hezkuntza)
Tolosako Haurres. PHE	Peñascal Tolosa OLHIP
Eduardo Mocoeroa MEPU	Don Bosco LHII (Paper Eskola)
Udal Euskaltegia	

Tolosan 14 hezkuntza-zentro daude: horietako 5 Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren menpeko publikoak dira; beste bi publikoak dira baina ez daude Hezkuntza Sailaren menpean; eta gainerako zazpiak zentro pribatuak dira. Pribatuen artean, bost kontzertatuak dira eta beste bat ez da kontzertatua baina diru-laguntza jasotzen du Eusko Jaurlaritzatik. Beraz, egun Tolosan hezkuntza-ziklo osoa egin daiteke herrian, D ereduari: haurreskola, haur, lehen eta bigarren hezkuntza, batxilergoa. Horrez gain, Lan Heziketako hainbat ziklo eskaintzen dira ere.

*Iturria: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.*


2015/2016 ikasturtean 5.380 matrikulazio erregistratu dira Tolosako hezkuntza zentroetan, ia erdia Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Haur Hezkuntzak %19 ikasle hartu ditu, Batxilergoak %10,4 eta Lan Heziketak %13,3. Helduen Hezkuntzan %9,7 pertsona matrikulatu dira ikasturte horretan.

*Iturria: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.*



Ikasturte horretako datuak generoaren arabera banatuta ez daude eskura, baina aurreko ikasturtean (2014/2015) matrikulatutako 5.288 ikasletatik %51 mutilak ziren eta %49 neskek.

IKASLEAK HIZKUNTZA-EREDUAREN ARABERA 2015-2016  
IKASTURTEKO MATRIKULA DATUAK




Ia ikasleen %90ak euskarazko ereduan matrikulatu dira 2015/2016 ikasturtean. D eredu horrek ikasmila guztiak hartzen ditu barnean, helduen hezkuntza izan ezik; kasu horretan, matrikulazio guztiak gaztelaniazko ereduan egin dira. Bestalde, B eredu horrek Goi-mailako Lan Heziketako 33 ikasleren matrikulazioak hartzen ditu barnean, hau da, ikasmila horretako matrikulazio guztien %8.

*Iturria: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.*

## • ESKAINTZA / JARDUERAK

### Kirol eskaintza

ESKOLA KIROLETAKO PARTE HARTZEA




Tolosako eskola-kirolaren bilakaera oso aldakorra izan da ikasturteetik ikasturtera. Horrela, 2011/2012 ikasturtean partaide kopuru handiena lortu zuenetik, ondoren beherazko joera adierazi du kirola-mota honek; hortaz, azken ikasturtean (2014/2015) %29ko jaitsiera erregistratu du aurreko ikasturtearekin alderatuz.

*Iturria: Tolosako Udalaren Kiroletako Plan Estrategikoa 2015-2019.*

Eskola-kirolari dagokionez (eskola-orduz kanpoko kirola), Tolosak aurrekaria izan nahi du 25 urteko eredu berrituz eta naturari begiratzeko eredu eraikiz, beste motatako balioak bultzatzen dituen: kirola ezlehiakorra, herriarekin lotura estuagoa duena... Horretarako, daudenaz gain, beste jarduerak batzuk bultzatu behar dira: piraguismoa, mendizaletasuna, txirindularitza,...

Ilde horretan, Tolosaldeko Eskola Kirolan abian jarritako egitasmoa da Zumardia Proiektua. Natura, hezkuntza eta kirola elkartzen dituen proiektua da, naturaren ezagutza eta errespetua, giza balioak, parekidetasuna eta elkarlana lantzen dituena, hainbat jardueraren antolatuz (kirol-irteerak, kirol-jarduerak,...). Eskola-kirolan sumatutako hutsunea betetzeko asmoarekin sortu zen; hain zuzen, kirol errendimendura bideratuta dagoen kirol eremuan, non irabazteak gaitasun batzuk eskatzen baititu, lekurik topatzen ez duten haurrei beste eskaintza mota bat eskura jartzea da helburua.

#### KIROL FEDERATUETAKO PARTE HARTZEA



Tolosako kirola federatuak hainbat jardueraren bidez barnean: futbola, saskibaloia, arraunketa, txirrindularitza, eskia, tenisa, judo, xake, pilota, urpekoak,... Parte hartzeari begira, eskura dauden datuen arabera, kirol mota hori nahiko maskulinizatua dagoela esan daiteke, partaideen bi heren mutilak baitira.

*Iturria: Tolosako Udalaren Kiroletako Plan Estrategikoa 2015-2019.*


Errendimenduari begira, Tolosako kirola federatuak etekin-erakunde ezin hobekak lortu dituzte eta horrek hainbat eskakizun dakartza baliabideen eta aurrekontuaren aldetik, errendimendu maila horri eutsi nahi bada: bidaiak finantzatzeko, material berriak erosteko,...

Tolosarrei eskainitako kirola jarduerak anitzak dira (ariketa fisikoarekin lotutakoak, uretako kirola, ...) eta publiko ezberdinei zuzenduta daude (helduak, gazteak eta haurrak).

Denontzako kirol horrek herrian antolatu ohi diren hainbat ekitaldi hartzen ditu barnean: krossa, mendi irteerak, txapelketak, etab.



HERRITARREI ZUZENDUTAKO  
KIROL- EKINTZETAN PARTE HARTZEA



Grafikoak erakusten duenez, ekitaldi horietan parte hartzen duten 4 biztanletatik ia 3 gizonak dira. Hala ere, badaude beste ekintza zuzenduak, esparru itxian egin ohi direnak (spinning, aerobic,...) non emakumeen parte-hartzea gizonena baino altuagoa baita.


Iturria: Tolosako Udalaren Kiroletako Plan Estrategikoa 2015-2019.

Udalak Mugi Tolosa Programa bultzatu du azken urteetan. Programa horrek udalerrian zeharreko oinezko ibilaldi osasuntsuak egitea sustatzen du, kirola egiteko eta adinekoen sozializazioa laguntzeko asmo bikoitzarekin. Azken edizioan (2014/2015) 2.708 pertsonak parte hartu zuten, hau da, 94 pertsona batez beste irteera bakoitzeko, eta horietatik %65 emakumeak eta %35 gizonak izan ziren.

### Kultura eskaintza

Zabala eta anitza da Tolosako kultura-eskaintza; esaterako, txosten hau egiteko orduan, Tolosako Udaleko agendak 30 kultura jarduera baino gehiago jasotzen ditu diziplina ezberdinetan: erakusketak, arte eszenikoak, ikastaroak, zinema, haurrei zuzendutako ekintzak, musika,... Horri gehitu behar zaio herriko beste kultur eragilek eskaintzen dutena: Bonberenea, Box A, Topic... Datuen eskuragarritasun-maila dela eta, fokua Leidor Antzokiaren arte eszenikoetako programazio profesionalean jartzea erabaki da, lagin gisa.

LEIDOR ANTZOKIAK PROGRAMATUTAKO  
EMANALDIEN BILAKAERA




Leidor Antzokiak programatutako arte eszeniko profesionaletako emanaldiek gora egin dute azken urteetan. 2011 urtean gutxiago programatu bazen ere, 2012tik aurrera joerak gora egin du, eta igoera adierazgarriena 2013an eman zen, aurreko urtea baino %75 gehiago programatu baitzen.

Iturria: SAREA Euskal Antzoki Sarea. 2013-2014.

Leidor Antzokiko 2014ko programazioaren erdia baino gehiago antzerki emanaldiek osatzen dute (%53); musikak emanaldien %28 biltzen ditu; eta dantzak programazioaren %14 hartzen du. Leidor antzokiko 2014ko programazioaren %80 helduei zuzenduta dago, eta emanaldien %20 haurrei eskaini zaizkie.

Antzeko ezaugarrietako beste antzokirekin alderatuta (urtean programatutako ikuskizun kopurua eta kontratazioetan gastatutako aurrekontua kontuan hartuta), Leidor Antzokiak Aita Mari Antzokiak (Zumaia), Amaia Kultura Zentroak (Irun) eta Bastero Kulturguneak (Andoain) baino emanaldi eta ikusle kopuru altuagoak azaltzen ditu.

LEIDOR ANTZOKIRA JOAN DEN IKUSLE KOPURUAREN BILAKAERA



Leidor Antzokira joan diren ikusle kopuruaren bilakaerak gorazko joera adierazten du; izan ere, ikusleak %23 gehitu dira 2014an, aurreko urtearekin alderatuz.

*Iturria: SAREA Euskal Antzoki Sarea. 2013-2014.*

Ikusleen erdia baino gehiago (%53) antzerki emanaldiak ikustera joan dira 2014an; musika emanaldiek ikusleen %19 bildu dute; eta ikusleen %11 dantza emanaldietara joan dira. Bestalde, ikusleen % 61 helduak dira eta gainerrako ehunekoa (%39) haurrak dira.

Azkenik, 2014ko antzerki programazioaren ia %80 euskarazko emanaldiek osatu dute eta 5.842 ikusle erakarri dituzte. Euskarazko antzerki emanaldi horietako %40 haurrei zuzenduta egon dira; bestalde, euskarazko antzerki emanaldietara joan diren ikusleen %72,6 haurrak izan dira.

Antzeko ezaugarrietako aipatu antzokiekin alderatuta, Aita Mari Antzokiak programatutako antzerki ikuskizunen %86 euskaraz izan dira; Bastero Kulturguneak %65 eta Amaia Kultura Zentroak %47.


## • EUSKARAREN EGOERA

Hizkuntza normalkuntzaren arloan, erreferentzia markoa da Tolosako Udalak martxan duen ESEP – Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2015 – 2019, gizarte-esparru guztietarako hizkuntza politika zehazten duena. Bertan adierazten denez, euskararen normalkuntzak helburu bat du: erabilera. Zehatzago esanda, udalerriko ohizko komunikazio sozialerako hizkuntza nagusia euskara izatea da Udaleko hizkuntza politikaren helburua, eta




helburu hori lortzeko behar den egitura egokitzea eta bitartekoz hornitzea izango da Udalaren betebeharra. Helburu horretan kokatzen da honako hau ere: Tolosako Udala partaide den UEMAk bere jardunbidea arautzen duen estatutuetan dio bere helburu orokorra dela, besteak beste, udal partaideen administrazioetako barne jardueran eta udalerriko arlo guztietan euskararen erabilera ahalbideratu eta bermatzea.

## Euskararen ezagutza



Hizkuntza-gaitasunari erreparatuta, Tolosako biztanleen erdia baino gehiago euskaldunak dira (euskara ondo ulertzen eta hitz egiten dute); ehuneko hori Tolosaldekoaren azpitik kokatzen da, baina Gipuzkoa mailakoa baino altuagoa da.


Iturria: EUSTAT.



Biztanle tolosar euskaldunen kopurua egonkor mantendu da 2001etik 2006ra %64,5 ehunekoa; harrezkero, aldiz, gora egin du pixka bat (+%2). Eskualde mailan euskaldun kopurua haziz joan da progresiboki. Lurralde mailan, berriz, 2011ko ehunekoa 2001ean erregistratutakoaren azpitik kokatzen da.


Iturria: EUSTAT.

Bilakaerari erreparatuta, eta ESEP-eko Euskararen erabileraren bilakaera ulertzeko gako batzuk izeneko atalean aipatu bezala, biztanle guztiak kontuan hartuta, euskaraz dakitenen eta lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa berdintsua da azken urteetan; nahiz eta haur eta gazteetan handitu den D ereduari esker.



1986tik 2006ra erdaldun kopurua dezente murriztu zen (4000tik 2500era) baina hortik aurrera mantendu egin da, euskaldunen kopurua bezala. ESEP-en aipatzen den bezala, datu horiekin zaila da erabileran jauzi handirik ematea eta, ondorioz, 2000. urtetik hona eremu horretan ezin aurrera egingez darraio Tolosak.


Iturria: EUSTAT.



Biztanleen erdiak euskara dute ama-hizkuntza Tolosan; ehuneko hori eskualde mailako batez bestekoz azpitik kokatzen da, baina Gipuzkoa osoaren ehunekoa baino 16 puntuz ginetik dago.

Iturria: EUSTAT.


## Euskararen erabilera



Tolosako biztanleen %38k adierazten dute etxean euskara erabili ohi dutela. Ehuneko hori eskualde mailakoa baino 9 puntu txikiagoa da, baina lurralde osoak adierazten duen ehuneko baino askoz ere altuagoa da.

Iturria: EUSTAT.

Bai Tolosan bai Gipuzkoa osoan gaztelania da etxean erabiltzen den hizkuntza nagusia. Tolosaldeko eskualdean, aldiz, euskara nagusitzen da etxeke erabileran.



Tolosako kaleetan entzundako elkarrizketen %44,1 euskaraz izan dira; gaztelaniaz %53,6 eta beste hizkuntza batzuetan %2,3.

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Soziolinguistika klusterraren arabera, haurrak (%66,5) eta gazteak (%62,3) dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Helduek (%40,3) eta adinekoek (%30,2) gutxiago erabiltzen dute euskara. ESEP-en aipatzen denez, indarberritzen ari den hizkuntza baten ordena izango litzateke. Beraz, etorkizuna euskaraz datorrela esan liteke, eta horretan bai administrazioak bai herritarrek dute zeregin garrantzitsua.

Haurren kasuan, bakarrik (nagusirik gabe) daudenean, erabilera gehiengoa euskaraz da (%56,9). Nagusiek, aldiz, euren artean (haurrik gabe) ari direnean, gutxiago erabiltzen dute euskara (%32). Haurrak eta helduak nahastuta daudenean, haurra hitz egiten ari bada euskara erabiltzen da batik bat (%78,1); nagusia hitz egiten ari denean, aldiz, euskararen erabilera %43,7koa baino ez da.

Generoari erreparatuta, umeengan eta bereziki gazteengan aldea bada gizonaen eta emakumezkoen erabileran: neskek gehiago erabiltzen dute. ESEP-en egindako azterketan gertakari hori azaltzen duten hainbat faktore aipatzen dira, besteak beste, nesken euskarazko gaitasun erlatiboa hobea dela eta baita eskolaz kanpoko jardueretan zein aukera librean dutenean (irratia entzutean, liburu edo aldizkariak irakurtzean...) ) neskek mutilek baino sarriago aukeratzen dutela euskarazkoa. Hala ere Tolosan ez dago alde handiegirik.

ESEP-en egindako azterketan hainbat faktore aipatzen dira umeek eta gazteek euskara erabil dezatela errazago egiten laguntzen dutenak, eta horietako lehendabizikoa da hizkuntza erabiltzeko esparruak ugaritzea; horrela, ume eta gazteengan gehien eragiten duten arloetan esku hartu beharko litzateke. Esparru horiek ondorengoak dira:

- **Familia transmisioa.** *Euskaraz errazago egiteko oinarrizko faktorea da lehen-hizkuntza (0-3 urtean ikasi duena) euskara izatea. 13-14 urtekoetan, lehen hizkuntza euskara ez dutenetatik ia inork ez du euskaraz errazago egiten. Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dituztenetatik gutxiengoak egiten du euskaraz errazago.*



- **Eskola** (gelako jarduna). Gaur egun 25-30 urte baino gutxiago duten guztiek D ereduan ikasi dute, eta gaur egun, Lanbide Heziketako kasuren bat eta Helduentzako ikaskuntza izan ezik, D eredia da nagusi.

- **Eskolaz kanpoko jarduerak**. Eskolak baino denbora gehiago hartzen du: jangela, autobusa, jolastokia, kirola, hizkuntzak, musika... Gaur egun, oro har, ume eta gaztetxoetan nagusiki euskaraz da baina ekintza batzuetan (kirola...) gaztelania gailentzen da adinean gora egin ahala. Galtzaundiren lana alor honetan oso da garrantzitsua.

- **Ikus-entzun-irakurtzeko kontsumoa**. Gero eta pisu handiagoa du. Egunean 3 ordu inguru ematen dute telebista ikusten. Ere mu oso erdalduna da eta gaztetxoek zein gazteek ez dute euskarazkorik gehiegi ikusten datuen arabera.

- **Lagunak**.

Azkenik, etorkizunera begira ESEP-ek egiten duen diagnostikoari erreparatuta, funtsezkoa da guraso gazteek euskara erabil dezatela sustatzea, haiek baitira euskararen transmisioan rol nagusia jokatzen duten eragileak. Horrela, bikote euskaldunak sortzeko probabilitatea asko handitu bada eta handitzen jarraituko duela badirudi ere, garrantzitsua da gazteekin lan egitea, bikote hizkuntza lehenengo harremanetan finkatzen delako, neurri handian.

Funtsezkoa da guraso gazteek euskara erabil dezatela sustatzea, haiek baitira euskararen transmisioan rol nagusia jokatzen duten eragileak





---

# HERRITARREK DIOTENA

---

kultura eta  
hezkuntza

---

### **Kirolaren esparruan hiru atal nagusi bereizten dira:**

- Eskola kirola: partehartzea gutxitzen doa eta horrekin batera eskola kirola eredia arriskuan dago. Guraso eta ikastetxeekin batera heldu behar zaio gaiari, baloreetan oinarritutako kirol praktika berrindartzuz.

---

Premiazkoa da Kultur etxearen berrikuntza integralari heltzea eta honekin batera, Udalak erabilerari anitzeko ekipamenduen erabilera errazteko mekanismoak jarri beharko lituzke, tamaina eta mota ezberdineko ikuskizunak antolatzeak aukerak areagotze aldera. Honez gain, kultura arloan ekintzaitasuna bultzatu beharko litzateke, horretarako leku zehatz bat egokituz, ekintzaile ezberdinen arteko harremanak sustatzen lagunduko lukeena.



“Kultur eskaintza zabala eta anitza da”

---

Ikastetxeek irekiagoak izan eta herriari begira egon beharko lukete, zentro desberdinak elkarlanean arituz. Ikasketa ez-formalari garrantzi gehiago eman behar zaio eskolaz kanpoko ekintzak diseinatuz, online eskaintza areagotuz eta herriari (eta bailari) begirako eskaintza osatuz.

- Kirol federatua: Emakumeen presentzia oraindik ere baxuagoa da. Egitura federatiboak lehiatik kanpo aisia, kirol osasuntsua, plazerra eta bestelako gaiak ikusarazi beharko lituzke.
- Guztiontzako kirola: Ikastaroetan emakumeen presentzia oso altua bada ere (%90), txapelketak aldiz gizonaen esparruak dira.

---

## “Kultura arloan ekintzaitasuna bultzatu beharko litzateke”

---

Tolosako kultur eskaintza zabala eta anitza da eta, orokorrean, hartzaile mota eta adin ezberdinei zuzenduta dago, nahiz eta nerabeen kausan batzuetan hutsuneak egon daitezkeen edo euren parte hartzea baxua izaten den. Kultur sorkuntza bultzatu beharko litzateke eta, horretarako, lehenengo pausu bezala, gaur egun dagoenaren mapa edo argazki bat egin beharko litzateke.

---

## “Euskararen erabilera datuak nahiko onak dira”

---

Euskararen erabilera datuak nahiko onak diren arren, badaude hainbat esparru non ahaleginak egin behar diren datuak hobetze aldera: zerbitzuak, lan-mundua, lanbide heziketa, eskola eremuan (gelaz kanpo eta hizketa-gai informala)...Honekin lotuta, euskararen erabilera sustatze-lan honetan, helduak eredu izatea behar beharrezkotzat jotzen da.



---

# ALDERDIEK DIOTENA

---

kultura eta  
hezkuntza



---

Herriko kultur eskaintzak eta sormenak indar handia du, kultura esparruan Tolosa erreferentzia gunea bilakatu delarik. Indar-gune honek Gipuzkoa mailan burutzen diren beste ekimenekin osagarri izan beharko luke, beti bertako nortasuna mantenduz. Kultur espazio eta ekipamenduen inguruko hausnarketa zabala beharrezkoa da, ferialekua, beste eraikinak eta, besteak beste, zezen plaza ere kontuan izanda, erabilerak eta kudeaketa aukera ezberdinak aztertuz eta kultur eskaintza ezberdinen arteko sinergiak birpentsatuz.

“Kultur espazio eta ekipamenduen inguruko hausnarketa zabala beharrezkoa da”



---

“Kirola balore positiboen transmisiorako tresna garrantzitsu gisa bultzatu beharko litzateke”

---

Udalerriko kirol eskaintza eta, horrekin batera, kirol taldeak, eskola kirolaren baloreetan murgildu beharko lirateke, kompetitiboa ez den kirola bultzatuz, inklusiboa, belaunaldi artekoa, etab. Kirola balore positiboen transmisiorako tresna garrantzitsu gisa bultzatu beharko litzateke, horretarako, gurasoen kontzientziazioa eta udalaren laguntza ezinbestekoa direlarik.

---

Euskarak espazio guztietan bere lekua izan behar du, lan munduan, espazio informaletan (gazteen aisialdian eta kirolean batez ere) eta baita espazio fisikoetan ere. Euskararen egoera sozio-linguistikoan eragina izan dezaketen edonolako planen azterketa egin behar da, hizkuntzan duen inpaktua aztertzeko, eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko, beti tolosar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuz eta diskriminaziorik egin gabe.

---

“Euskarak espazio guztietan bere lekua izan behar du, lan munduan, espazio informaletan eta baita espazio fisikoetan ere”



INGURU-  
MENA ETA  
LURRALDE  
ANTOLA-  
MENDUA

# 1 HAU DA TESTUINGURUA

Ingurumen eta lurralde arloek inguruko kalitatea zehazten dute, eta horrekin batera baita bertan bizi diren pertsonen bizi kalitatea ere. Egungo hazkunde eta kontsumo globalaren ereduak berrerabilgarriak ez diren baliabideen agortzea dakar, honek eredu berriak pentsatzera eta ekoizpen eta kontsumo politikak ekonomia zirkularra bezalako eruedetara bideratzera behartzen gaituelarik eta horrela, baliabideen erabilera eraginkorra bultzatzen delarik.

Ingurumen eta lurralde arloek inguruko kalitatea zehazten dute, eta horrekin batera baita bertan bizi diren pertsonen bizi kalitatea ere.

Herrien garapenak garrantzi handia dauka ingurumen arlo guztietan, izan ere, herriak sistemak dira, sistema natural, fisiko eta kulturalak uztartzen diren sistema bakarrak, horregatik lurraldea modu iraunkorrean antolatzeak, herri konpaktu eta konplexuak, eraginkorrak, sozialki kohesionatuak eta osasuntsuak sortzea dakar.

Testuinguru honetan, tokiko mailan egin beharreko lanak garrantzia berezia hartzen du. Izan ere, ingurumen eta lurralde arloko udal politikak kasu gehiene-

tan, tokiko mailatik ekitearen beharrari erantzuten dio maila globalean eragiten duten arazoei eta udaleko mugak gainditzen dituztenei aurre egiteko.

Adibiderik garbiena aldaketa klimatikoaren erantzule diren CO<sub>2</sub> isuriaren arintzearen aurreko tokiko ekintza da, isuri hauen inpaktuak dagoeneko planeta osoan eragiten du eta gaur egun gizakia aurre egiten ari den ingurumen arazo handienetakoa suposatzen du. Soilik konpromiso irmo batek eta udalen ekintza bateratuak hurbil gaitzake Pariseko COP21ean sinatutako akordioak betetzera eta 2050erako Klima Aldaketaren Eus-kadiko Estrategiak 2030erako zehaztutako isuriaren %40 murrizteko helburuetara iristera.


Berdina gertatzen da ingurumen naturalaren babesarekin, uraren kalitatearekin, hondakinen murrizpen eta kudeaketarekin edo eta atmosferaren kalitatearekin, zeinaren ikuspuntuak tokiko maila gainditzen duten eta erantzunkidetasun orokor batera pasatzen diren. Erantzunkidetasuna hitz gakoetako bat da eta aldi berean gizartearen erronketako bat.

Adibiderik garbiena aldaketa klimatikoaren erantzule diren CO<sub>2</sub> isuriaren arintzearen aurreko tokiko ekintza da



# 2 HAUEK DIRA DATUAK

## • LURRALDE ANTOLAKETA



Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 2009an onartu zen. 2014ko abenduan, Tolosako Planaren Berrikuspen Partzialari dagokion Aurre-rapen dokumentua onartu zen.

Tolosako herrigunea bi azpiegituren artean kokatzen da, **N1 errepidea eta trenbidea**. Gainera **Oria ibaiak** ere herrigunea zeharkatzen du. Herri nukleoaz gain, banandutako eremuak ba-

dauzka Tolosak: **Bedaio, Urkizu eta Aldaba**, herri nukleoak osatuz (*Landa eremua, nekazaritza eta elikadura atala ikusi*).

Tolosako lurzoru artifizializatuaren gehiengo **sistema orokorrek** (bideek, ekipamenduek, gune libreek, ibai ibilguak, trenbideak...) eta **egoitzarako lurzoruak** hartzen dute.


*Iturria: Tolosako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.*

### Lurzoru artifizializatua

Herriak guztira 37,34 Km<sup>2</sup> inguruko azalera dauka eta lurzoru artifizializatua %21 da (Tokiko Iraunkortasun Adierazleak 2014), Udalsarea 21eko gainontzeko udalerriena baino pixka bat altuago izanik datu hau (%17,1 2013an). Herrigunean biltzen da Tolosako biztanleria gehiena, familia anitzeko blokeak izanik herrigunearen ezaugarri. 2015eko datuen arabera Tolosan 76,39 etxebizitza hektareako daude egoitzarako lurzoruan (Udalmap), eskualdean (56,16 etxebizitza/Ha) eta Gipuzkoan (60,30 etxebizitza/Ha) baino balio altuagoa izanik.

Gaur egun, Estatuko zein Erkidegoko arau anitzek jasotzen dute eraikitako hiriaren aldizkako ikuskapenak egiteko beharra edo, zenbait kasutan, obligazioa, eraikuntzen kontserbazioko eta segurtasuneko egoera zehazteko helburuz. Jabeek era horretako azterketak egitea eta eraikinen egoerari buruzko ziurtagiria eskuratzea beharrezkoa da 50 urtetik gorako eraikinen kasuan; 2018. urtea ezarri da hori betetzeko erreferentziako urtetzat. Era horretako txostenak Udalean aurkeztu behar dira, kontrola eta jarraipena egiteko.

TOLOSAN ETXEBIZITZARA BIDERATUTAKO ERAIKINENAK ERAIKITZE URTEAREN ARABEARA



Tolosan gutxienez etxebizitzetara bideratutako eraikinen %45ak 50 urte baino gehiago dauzka (INE), eta hauen %37,7 hondatutako egoera, egoera txarrean edo eskasean aurkitzen dira (%0,2, %6,9 eta %30,7 hurrenez hurren) (Eustat) Gehiengoak ondorengo auzoetan aurkitzen dira: Euskal Herria plaza, Alde zaharra, Soldadu kalea, Izaskun auzoa, Santa Klara eta San Estebanen. Udala, bere aldetik egoera txarrean dauden etxebizitzaren arloan lanean ari da, horrela, Euskal Herria plazan eta herrigune historikoan birgaitzeko plan bereziak dauzka onartuta.

*Iturria: INE: Biztanleria eta Etxebizitza Zentsua 2011.*

Tolosako udalak, hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzeko asmoz, ordenantza fiskalen bidez ohiko bizilekua ez diren etxebizitzeei errekaru bat aplikatzea onartu zuen. 2016. urtean errekaru hau 485 etxebizitzari aplikatu zaio.

Bestalde, 2016ko Tolosako etxebizitzaren erroldaren arabera Tolosan 9.360 etxebizitza daude. Beraz etxe hutsa izateagatik errekarua, Tolosako etxebizitzaren % 5,18-ari aplikatu zaio.



## Hiri iragazkortasuna

Herrigunea bi azpiegitura garrantzitsuren artean kokatzen da: N1 errepidea eta trenbidea. Bide-egitura hauek udalerrriaren hiri-iragazkortasunari eragiten diote. N-1 errepideak, ekialdetik zeharkatzen du herria, iparraldetik hegoalderantz, San Blas, Amarotz eta Santa Lutzia auzoak eta Usabal industrigunea herrigunetik bananduz. Trenbideak, batez ere, San Esteban auzoan du eragina, eta auzoa herrigunetik bereiztuta uzten du, hirijarraitasuna apurtuz.

Aipatzeko da baita ere, bi azpiegitura hauen artean dagoen lur eremua Oria ibaiaren lautadan dagoela eta beraz, laua dela, eta herrigunetik ateratzen garen heinean irisgarritasun arazoak sortzen direla auzoetan, gehienbat gune hauen topografiarengatik: Santa Lutzia eta Monteskie izanik eragin handieneko auzoak. Hala ere, azpimarratzekoa da, Zuloaga eta Bidebietan irisgarritasun arazoak murrizteko igogailuak jarri direla.

## Mugikortasuna eta irisgarritasuna

Tolosako mugikortasunaren aldetik, Udalak mugikortasun plan bat egin zuen 2010.urtean, eta plan horretan jaso bezala, zirkulazioa eta aparkalekuak hobetzeko jarduerak burutu dira.

Garraio modu iraunkorrak bultzatzeko asmotan, garraio publikoa, hiribusa, hobetzeko ibilbideak egokitu eta maiztasunak handitu egin dira, eta herrien arteko garraioa ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoa dena, hobetzeko aldaketak egin dira. Hala ere, oraindik hobetzekorik badago, batez ere informazioari eta intermodalitateari dagokionean.

Bestalde, **bizikleten bideak** hobetzeko ere jarduerak egin dira, horrela herrien arteko lotura bukatuta dago eta herri barruan 30 zonen bidez elkarbanatzen dute errepidea auto eta bizikletek. Hala ere, 30 eremu hauek ez dira oso erabiliak, segurtasun falta sumatzen baita hainbat zonetan.

Eta bukatzeko, **oinezkoen bideak** hobetzeko ahalegin handia egin da ere, horrela hainbat espazio pertsonentzako berreskuratu dira, adibidez Euskal Herria plaza, ikusgarritasuna eta segurtasuna handitzeko ekintzak egin dira, eta abar. Gainera, mugikortasun arazoak dituzten pertsonekin parte hartze prozesu bat egin zen Tolosako irisgarritasuna hobetzeko helburuz, eta honekin lotuta, 2014an Tolosa Mugi ekimena ere abian jarri zen **“Tolosa kale biziak”**en ekimenaren barruan, herriko heldu zein mugikortasun urria duten kolektiboentzako ibilbide osasuntsuk bultzatzeko garatutako proiektua. Samaniego ikastetxean Oinez busa ekimena ere martxan da.

Bestalde, klima aldaketaren inpaktu potentzialen aurrean **udalerrriaren egokitzapena** behar beharrezkotzat jotzen da. Lan esparru honek arriskuak eta horien aurrean udalerrriak duen kalteberatasuna aztertzea eskatzen du, ondoren, neurri zehatzak hartu ahal izateko.

Garraio publikoa, hiribusa, hobetzeko ibilbideak egokitu eta maiztasunak handitu egin dira, eta herrien arteko garraioa ere

## • ERREKA

### Oria ibaiaren erabilera

Tolosa Oria ibaiaren haranean kokatzen da eta herrigunea Oria, Araxes eta Berastegi ibaietako urek bat egiten duten lautadan dago kokatuta. Oria errekek Tolosako herrigunea zeharkatzen du hegoaldetik iparraldera, eta honek aukera ematen du Oria ibaiaren erabilerak zabaltzeko. Gaur egun, hainbat aisialdi eta kirol praktikak dira Oria errekan, hala nola, piragua, arrauna, batela, waterline, arrantza... Horrez gain, aipatzekoa da ibaiaren ertzean kokatzen den Zerkausia eraikina, izan ere, Tolosako eraikin eta ikur herriko ezagunenetako bat da, non, larunbatero eskualdeko baserriarrek euren produktu freskoenak ipintzen dituzten salgai.

### Saneamendua

Tolosa Tolosaldeko eskualdearen saneamendu sarean sartzen da eta Gipuzkoako Urak uraren ziklo osoa kudeatzen du. Saneamendu sareak hiri guneko ur zikinak biltzen ditu eta Adunako araztegi bidaltzen ditu kolektore sarearen bidez, kolektore sare hau ordea, ez da landa eremuko auzoetara iristen. Errekara zuzenean isurtzen diren isuriaren egoera ez da ezagutzen. Hala ere, gaur egun erreken kalitatean eragina izan dezakete landa eremuko isuriak, konektatu gabe egon daitezkeen zenbait aktibitatek (existentuko balira) eta isuri lausotuak (nekazaritza, errepide garbiketa,...) eta puntualki isurtzen duten gainezka bideek.

### Erreken egoera

Erreken egoera asko hobetu da saneamendu sarea osatu eta Tolosan gehien kutsatzen duten enpresak (paper-fabrikak) itxi direnetik.

Adierazlea		2010	2011	2012	2013	2014	Egoera ekologikoa (2014)
Oria	Egoera biologikoa						
	Egoera fisiko-kimikoa						
	Egoera hidromorfologikoa						
Berastegi	Egoera biologikoa	-	-				
	Egoera fisiko-kimikoa	-	-				
	Egoera hidromorfologikoa	-	-				
Araxes	Egoera biologikoa	-	-				
	Egoera fisiko-kimikoa	-	-				
	Egoera hidromorfologikoa	-	-				

■ Txarra  
 ■ Eskasa  
 ■ Moderatua  
 ■ Ona  
 ■ Oso Ona  
 ■ Ez ditu betetzen ingurumen helburuak

*Iturria: Uraren Euskal Agentzia, "EAEko ibaien egoera biologikoaren jarraipena egiteko sarea. 2014ko emaitzen txostena".*




Erreken egoera ekologikoak erreka biologikoki, fisiko-kimikoki eta hidromorfologikoki nola dagoen adierazten digu. **Berastegi eta Araxes** errekek egoera ekologiko ona dute, hala ere, azpimarratzekoa da, ez dituztela egoera hidromorfologiko egokia izateko ingurumen helburuak betetzen. Erreka hauen estruktura eta dinamika eraldatua agertzeaz gain, ertzetako basoak, hau da, haltzadi kantauriarrak, degradatuak agertzen dira baita ere, kasu gehienetan herriguneak, industriaguneak,

zein nekazaritza eta abeltzaintzarako lurak betetzen dutelarik baso hauen tokia. Berdina gertatzen da **Oria** ibaian, baina kasu honetan, egoera biologiko moderatua agertzen du 2014ean, hau ibaiko arrain espezie potentzialen faltari eta klorofila kontzentrazioa handiei (eutrofizatzeiko arriskua) zor zaie. Oria ibaian Tolosatik beherako zatian presak kentzeko lanak egingo dira. Epe motzean arrai migratzaileen espezie desberdinak ikusi ahal izango ditugula aurreikusten da. Adibidez, izokinak.

Arestian aipatu bezala, gaur egun Oria erreka ere pertsonen aisialdirako erabiltzen da, erabilera honetarako ordea, ez da ezagutzen errekaen kalitate egoera.

Tolosako udalak erreken egoera hobetzeko aurrerapauso bat eman du eta Uraren Euskal Agentziarekin (URA) ibai-ekosistemen biodibertsitatea babesteko helburuz protokolo bat sinatua du. Ekimen honen bitartez urtero ekintza plan bat adostuko da, URAK ingurumen urtarra hobetzeko eta ur-hustuketarako ahalmena bermatzeko lanak bere gain hartuko ditu eta Udalak hondakin-bilketa, udal azpiegiturak egoera onean mantentzeko lanak... hartuko ditu bere gain.

## • NATUR INGURUNEA ETA BIODIBERTSITATEA



■ Babes bereziko landa-zona    ■ Basogintzako landa-zona  
 ■ Nekazaritzako eta abeltzaintzako eta landazabaleko landa-zona


Tolosako udalerriaren %64 basoari dagokio eta %29 nekazaritza eta abeltzaintzarako lurzoruek hartzen dute (Baso inbentarioa 2010). Horrez gain, lurzoru osoaren %19,4 babestuta dago (Tokiko Iraunkortasun Adierazleak, 2014).

*Iturria: Tolosako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.*

## Baso eta nekazaritza eta abeltzaintzarako lurzoruak

Tolosako lurzoru ez urbanizagarrian baso eta nekazaritza eta abeltzaintzarako lurzoruak aurkitzen ditugu, lurzoru osoaren %64 eta %29 hartzen dutelarik hurrenez hurren. Esatekoa da, lurzoru hau ia bere osotasunean lurjabe pribatuen eskuetan dagoela, eta horrek zaildu egiten duela bere antolaketa habitaten kontserbazioari dagokionean. Aipatzekoa da Santa Lutzia auzoan kokatuta dagoen **Uzturre mendiaren** kudeaketa udalari dagokiola. 31 hektareako eremua da, eta bertan dauden habitaten kontserbazio egoera hobetzeko eta balio naturalak eta paisajistakoak berreskertzeko hitzarmena sinatua du Udalak lur zaintzarako elkarte batekin.

BASOETAKO ESPEZIEEN BANAKETA (2010)



- Intsignis pinua (Pinus radiata)
- Alertzea (Larix spp)
- Seudotsuga (Pseudotsuga menziesii)
- Beste koniferoak
- Pagoa (Fagus sylvatica)
- Baso misto atlantiarra
- Haritz kanduduna (Quercus robur)
- Beste hosozabalak

Baso hostozabalak %52 dira, gainontzekoak konifero basoak direlarik. Tolosako basoetan habitat garrantzitsuenak pagadi basoak, %26, baso misto atlantiarra, %12 eta haritz kandudunen basoak %9 dira, guztira baso autoktonoa %48 izanik.

*Iturria: Baso inbentarioa.*

Nekazaritza eta abeltzaintza lurren kasuan, larreak dira batez ere gailentzen diren habitatak, lur hauen %86a osatuz. Hala ere, habitat hauek egoera onean mantentzeko beharrezkoa da lehen sektorea ere osasuntsu mantentzea, eta Tolosaren kasuan esatekoa da, nahiz eta nekazaritzako lurak azken 5 urteetan mantendu, abelburu kopurua jaitsi egin dela, eta ganadu kargaren jaitsieran negatiboki eragin dezake larreen kasuan landa eremua, nekazaritza eta elikadura atalean azaltzen den moduan.

## Babestutako lurzoruak

Tolosako udalerrriaren %19 babestuta dago (Tokiko Iraunkortasun Adierazleak, 2014). Babestutako lurzoruak babes maila desberdinak dauzkate. Aipatzen diren guneak Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorrean jasota daude, baina horrez gain, udalaz gaindiko administrazioek ere beste planetan barneratzen dituzte:

Eremua	Udalaz gáindiko babesá	Kudeaketa Plana	Biodibertsitate aldetik daukan interesa
<b>ARAXES, JAZKUGAÑE ETA BASABE HARANA</b>	EAEn indarrean dauden Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak		Balio botanikoa da azpimarratzekoa, pagadi azidofiloez osatutako baso zabalak topa baitaitezke Bedaio iparraldean kokatuta dagoen eremu honetan.
<b>ARALAR</b>	· Parke Naturala, 1994 · Natura 2000 Sarea, 2016 (Kontserbazio Bereziko Eremua, KBE)	· Aralarko Natura Baliabideak Antolatzeko Plana · Informazio ekologikoa, kontserbazio helburuak, kontserbazio arauak eta jarraipenerako programa	Bedaio hegoaldean kokatuta dago Aralar. Landaredi komunitate natural edo erdi naturalez osatua da KBEaren azaleraren zatirik handiena; komunitate horietariko 18 Batasunaren Intereseko Habitatak dira. Habitat horietariko bost gáinera, lehentasunezkoak dira kontserbaziorako Europar Batasunean.
<b>ERNIOGATZUME</b>	Natura 2000 Sarea, 2012 (Kontserbazio Bereziko Eremua, KBE)	“Ernio Gatzume- ES2120008” Kontserbazio Bereziko Eremua izendatzea, helburu eta jarduerak	Ernio Gatzume eremuaren ia erdia basoek osatzen dute, eta horietatik zatirik handiena pagadi basoek. Tolosako eremuan ere berdina gertatzen da. Hala ere, garrantzitsuak dira baita ere, substratu kalkareoan kokatzen diren larreak.
<b>ARAXES IBAIA</b>	Natura 2000 Sarea, 2012 (Kontserbazio Bereziko Eremua, KBE)	“Araxes ibaia- ES 2120012” Kontserbazio Bereziko Eremua kontserbatzeko neurriak. Helburu eta jarduerak	Araxes ibaia Tolosan elkartzen da Oriarekin, eta KBEren %19a dagokio Tolosari. Interesgarria da bere ertzetan altzadi eta lizardi ibarbasoak aurki daitezkeelako, bere arrain faunagatik eta bisoi europarraren (Mustela lutreola) eta muturluze iberiarren (Galemys pyrenaicus) intereseko eremua izateagatik, bi espezieak gáltzeko arriskuan daude EAEn.
<b>ORIA IBAIA</b>	Natura 2000 Sarea, 2012 (Kontserbazio Bereziko Eremua, KBE)	“Oria Garaia- ES 12005” Kontserbazio Bereziko Eremua kontserbatzeko neurriak. Helburu eta jarduerak	Oria ibaia KBEren %2a dagokio Tolosari, Aldaba gunean dagoen Oria ibaiaren ibilgúa. Interesgarria da bere ertzetan altzadi eta lizardi ibarbasoak aurki daitezkeelako, bere arrain faunagatik eta bisoi europarraren (Mustela lutreola) intereseko eremua izateagatik, EAEn gáltzeko arriskuan dagoen espeziea da.

Babestutako gune hauez gáin, Tolosan beren ezaugarriengatik interesgarriak izan daitezkeen baina babestuta ez dauden beste gune batzuk ere azpimarratzekoak dira, hala nola:

- **Uzturre mendia:** Aralar eta Aiako Harriak lotzen dituen eskualdeko korridore ekologikoa da.
- **Aldaba:** Aralar eta Ernio-Gatzume lotzen dituen eskualdeko korridore ekologikoa da.

### Hiri biodibertsitatea

Orian arte aipatutako eremuak, eremu naturalak dira, baina ezin ditugu ahaztu hiri barruan aurki daitezken eremu interesgarriak. Hiri biodibertsitatea gaur egun ezinbesteko elementua da, izan ere biztanleriaren bizi

kalitatea eta osasuna hobetzeko elementuetako bat da, herritarrei natura ingurunearekin harremana izateko aukera baitira, eta aldi berean, sentsibilizaziorako gune interesgarriak. Tolosan horretarako aukera eman dezakete herriguneko berdeguneek, horien artean aipatzekoak alde batetik, San Estebanen kokatuta dagoen **Elosegi parkeak**, herritarrei eremua hurbiltzeko eta bertako elementuak balorean jartzeko asmoz gaur egun birgaitze lanean dagoena. Eta bestalde, **Iurreamendiko baratze parkea**, zaharren egoitzaren aurrealdean kokatzen dena.

Azken urteetan espezie inbaditzaileen presentzia areagotzen ari da, eta hauek bertako espezieen gain eragin handia sortzen dute

### Eremu naturalak

Eremu naturalean eragina izan dezaketen elementuak aurki daitezke Tolosan, inguruko gainontzeko herrietan bezala. Garraio azpiegiturak (N1 errepidea, Abiadura Handiko Trenaren trazadurak...) eta hirigintza garapenak izaki bizidunentzako barrera linealak dira. Horrez gain, azken urteetan **espezie inbaditzaileen** presentzia areagotzen ari da, eta hauek bertako espezieen gain eragin handia sortzen dute. Tolosaldea Garatzenen koordinaziopean, Oria ibaian eta Araxes azpi-arroan dagoen flora inbaditzailearen (*Helianthus tuberosus*, *Fallopia japonica*, *Cortaderia selloana* eta *Buddleja davidii*) erradikazio lanak egin izan dira, ibar basoaren errehabilitazio ekologikoa eta erregenerazioa aurrera eramateko helburuz.

## • LANDA EREMUA, NEKAZARITZA ETA ELIKADURA

### Landa auzoak


Arestian aipatu bezala, Tolosak herri nukleoaz gain, banandutako guneak ere badauzka eta hauek landa auzoak osatzen dituzte. Herri nukleo txikiak osatuz **Bedaio, Urkizu eta Aldaba** auzoak daude eta baserri eta etxebizitza diseminatuz osatutako auzoak **Monteskue eta Santa Lutzia**. Bedaio, Urkizu eta Aldaba dira herrigunetik urrunen aurkitzen diren auzoak, 17, 8 eta 12 kilometrotara hurrenez hurren. Landa auzo hauek hainbat zerbitzuren eskasia agertzen dute, batez ere Tolosa herrigunetik duten urruntasunarengatik, hala nola, uren saneamendu sarea eta garraio publikoa, nahiz eta eskaripeko garraio zerbitzua badagoen.

### Lehen sektorea

Nahiz eta Tolosa herriak landa auzoak eduki, gaur egun lehen sektoreak pisu gutxi dauka, zerbitzuetara bideratutako herria baita gehienbat. Horrela, Balio Erantsi Gordina aztertzerakoan, sektore honek Tolosan Balio


Erantsi Gordina gutxien sortzen duen sektorea da, %0,5 (Udalmap, 2012), hala ere, bilakaeraren aldetik, egonkor mantendu da urteetan zehar. Biztanleri okupatuaren ikuspegitik ere lehen sektoreak ehuneko txikia adierazten du, Tolosaldea eta Gipuzkoakoa baino txikiagoa. Nekazaritza enpleguei dagokienez, eskuragarri dauden azken datuen arabera (2009) 135 lanpostu zeuden Tolosan. Horietatik 133 bat zetozen familiako enpleguekin eta 2 besterik ez ziren besteren konturako lanpostuak.

Zentzu honetan arazo nagusia, lehen sektoreko jardunean errentagarritasun maila nahikoa lortzea da, gazteek, oro har, ez dute baserrian lan egiteko interesik erakusten eta belaunaldien arteko erreleboa gero eta zailagoa egiten da, jarduera hau galtzeko arriskuan jarriz. Horrez gain, lursailak eskuratzeko zailtasunak ere agertzen dira.



Nekazaritzara bideratzen den lurzorua mantendu egin da azken 5 urteetan (IKT, Ingurumena eta Lurralde Politikaren Saila 2013).

Lurzoru honen %15 modu ekologikoan landu dela gaineratu behar da (2013), eta nahiz eta azken 5 urteetan portzentaje hau jaitsi egin den urteak pasa ahala labore mota gehiago lantzen dira modu ekologikoan.



*Iturria: ENEEK - Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua, 2013.*


#### Ustiapen burua

Adin-tarteak	Emakumeak	Gizonak
25-34	1	2
25-44	3	18
45-54	15	12
55-64	12	28
>=65	10	19
Guztira	41	79

Taulan azaltzen den moduan, gizonezkoak diren ustiapen buruak emakumezkoen bikoitza direla ikus daiteke. Etorkizunera begira, deigarria da 44 urtetik beherako ustiapen buruen kasuan gizonezkoen proportzioa emakumezkoena baino bost aldiz handiagoa dela.

*Iturria: Nekazaritza errolda 2009.*

#### ABELTZAINZARAKO GANADU KOPURUA



Abeltzaintzari dagokionez, azken 5 urteetan %2an jaitsi da aziendako abelburu kopurua. Abelburuen banaketari begiratzen badiogu, ardiak dira gehiengoak, %66, eta ondoren esnetarako ez diren behiak jarraitzen diote, %23.

*Iturria: NEIKER - Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakunde, 2013.*

Tolosan garaiko eta bertako produktuak kontsumitzeko zein merkaturatzeko aukera badago larunbatero egiten den azokaren bidez


Eskualde mailan, Landa Garapenez arduratzen den erakundea Tolomendi, Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkartea da, zeinak zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituen: Udaletxeei zuzenduriko zerbitzuak; nekazaritza eta basogintzaren garapenera zuzendutako ekintzak; ekonomiaren dibertsifikazioa; landa turismoa; etab.

Tolosan, Udalak, Fraisoro nekazaritza eskolak eta Tolomendik elkarlanean, **Santa Lutzia eremuko Baratza Hazitegiak** jarri zituzten martxan nekazari hasiberriak nekazari profesional bihurtzeko helburuarekin.

Bestalde, bertako produktuak kontsumitzeko herritarren eskaerak gora egin izanak, Tolosan **kontsumo taldeak** sortzea ekarri zuen, horrela baserritarrak eta kontsumitzaileak elkarlanean aritzeko konpromisoa hartuz. Hala ere, aipatzekoa da, nahiz eta taldeak mantendu, gaur egun indarra galdu dutela. Tolosan gainera, garaiko eta bertako produktuak kontsumitzeko zein merkaturatzeko aukera badago larunbatero egiten den **azoka**ren bidez.

## • INGURUMEN KALITATEA

### Airearen kalitatea



Nafarroa etorbideko aire-kalitatearen neurketa-rako estazioan jasotzen diren datuen arabera, Tolosan %95 egunetik gora airearen kalitatea ona edo oso ona da. Aipatzekoa da urtero 10/11 egunetan airearen kalitatea hobetzeko modukoa dela. Ibilgailuen trafikoa Tolosako airearen kutsadura foku nagusia da eta, partikulak (PM10) eta nitrogeno dioxido (N02) kontzentrazio handiak ematen ditu egun horietan.

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetza.*

2007 arte jasotako datuak airearen kutsaduraren existentziaren berri eman zuten, partikulek sortua izan zela (ibilgailuen trafikoaren eraginez). Kalitate maila hobetzeko helburuarekin, Jaurlaritzak 2008an neurri zuzentzaileen proposamena egin zuen. Hauei esker 2009 urtetik aurrera aire-kalitatearen indizeak hobekuntza nabarmena izan du. Neurri zuzentzaile hauek trafikoa antolatzeke eta mugikortasun jasangarria bultzatzeko zuzenduta zeuden: bideak oinezkoentzat egin, garraio publikoa sustatu, TAO guneak zabaldu, bidegorriak egin, etab.

## Kalitate akustikoa

Kalitate akustikoa eragina izaten duten isurien foku nagusiak: ibilgailuen trafikoa, trenen trafikoa eta aisialdi jarduerak. Egun Tolosako Zarataren Mapa Estrategikoa egitean ari da. Berau osatu arte, zarata foku zehatzen inguruan eskuragarri dagoen informazioa ondorengoa da:

	Eragin handien duten zonaldeak	Eragina jasan dezaketen pertsona kopurua	Neurri zuzentzailearen proposamena	Iturria
<b>Trenzirkulazioa (Adif)</b>	Andia kalea, Barrena kalea, Montezkue auzoa, San Esteban Auzoa	Lg <sub>aua</sub> dB(A) >55: 904	Pantailak jartzea (eginda?)	<i>Trenbide ardatz nagusien Zarataren Mapa Estrategikoetako Zarataren kontrako Ekintza Planak. Sustapen Ministerioa, 2011</i>
<b>Errepideak N-1</b>	N-1aren inguruko auzoak	Lg <sub>aua</sub> dB(A) >50: 3.700 Lden dB(A) >55: 4.600	Ibarrak biaduktuan pantaila akustikoak jartzea (egina)	<i>Gipuzkoako Foru bide sarearen ardatz nagusien zarataren mapa estrategikoak. GFA, 2008</i>

Tolosan 2005. urtean lehen soinu mapa egin zen. Gaur egun lan hau berrikusten ari da eta onartu ondoren herriaren zonifikazio akustikoak eta kalitate akustikoaren xedeak definitu ahalko dira. Jardueretako baimenetan 213/2012 dekretua hartzen da oinarri gisa neurri zuzentzaileak zehazteko.

## Lurzoru kutsatuak

Udalerrian kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen azaltzen dira hurrengo taulan:

Tolosan	Gipuzkoa	EAE
37 Ha (udalerriko azalera osoaren 0,99%)	2.256 Ha (Gipuzkoako azalera osoaren 1,14%)	9.031 Ha (EAEko azalera osoaren 1,25%)

*Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen azalera. Udal iraunkortasun adierazleak. 2014. urtea.*


Kutsatuta egon daitezkeen zati handiena (%67) industria-jarduerari dagokie eta gainontzekoa (%33) zabortegei (aktiboak edo ez aktiboak). Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen kudeaketari dagokionez, Udalak sartzen diren espedienteak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera bideratzen ditu eta azken hauek espedienteak aztertu eta beharrezko neurri zuzentzaileak jartzen dituzte. Beste espediente batzuk aurre-txostena soilik behar izaten dute eta Udalean bertan kudeatzen dira. Hala ere, hauetakoren batek lurzoru kutsatuetan eragina izan dezakeela ikusten bada, Eusko Jaurlaritzara bideratzen dira baita ere.



## • ENERGIA ETA KLIMA ALDAKETA

### Energia

ELEKTRIZITATE ETA GAS NATURALAREN KONTSUMO BILAKAERA  
-industria, zerbitzuak eta etxebizitzak- (MW/urte)



Elektrizitate kontsumoak beheranzko joera azaltzen du 2010. urtetik aurrera. Gas naturalaren kontsumoa, aldiz, 2009tik 2013. urtera arte gehitzen joan da baina azkeneko urtean beherakada garrantzitsua izan du (%18). Kontsumo totalari begiratzen badiogu, 2009tik 2014. urtera arte %17ko beherakada egon da.

Iturria: Tolosako Udala.

Udalak Alkateen Itunarekin bat egin ondoren, 2012an **Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana** onartu zuen, 2020. urterako berotegi efektuko gasen emisioen %20 murrizteko konpromisoa hartuz. Plan horretan oinarrituz, azken urteetan hainbat ekimen egin dira **energia eraginkortasuna eta energia iturri berriztagarriak** bultzatze aldera: udal bost eraikinetan **energia azterketak** egin dira, Usabal kiroldegian **kogenerazio sistemaren** hobekuntza egin da, Urkizu auzo elkarteko eraikinean **biomasa galdara** jarri da, etab. **Argiteria publikoan** ere kontsumo baxuko luminariak jarri dira herrian zehar, kontsumoaren murrizketa garrantzitsuak lortu direlarik (27%).

Bestalde, azpimarragarria da **herritarrek** ere euren etxebizitzetan energia kontsumoa murrizteko ohitura aldaketak egiten ari direla. 2015ean Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako **ARGITU** Programa abian jarri zen udalerrian eta bertan 100 bat familia parte hartzen ari dira, arazoizko kontsumo jardunbideak pixkanaka euren eguneroko jardueran txertatuz.


Honekin lotuta, aipatu behar da udalerrian badaudela energia faktura ordaintzeko arazoak dituzten familiak. Arazo hau sakonago ezagutzeko eta horri aurre egiteko helburuarekin **pobrezia energetikoaren** inguruko azterketa bat abian jarri da Tolosako 11 familiekin.

Azkenik, **zerbitzu sektoreari** dagokionez, energia kontsumoa murrizteko aurrerapausoak ere ematen ari dira. Izan ere, Tolosaldea Garatzenek, eskualdeko Energia Planaren baitan, merkataritza arloan energia eraginkortasuna hobetzeko programa abian jarri du, non Tolosako 10 saltoki ari diren parte hartzen.

## Klima Aldaketa

Energiarekin lotutara zuzena duen Udalaren beste lan esparrua Klima Aldaketa da. Adituen hitzetan mundu mailako arazo larrirenetarikoa baten aurrean gaude da eta ezinbestekoa suertatzen da neurriak tokiko mailan hartzea.

Beste hainbat gaiekin gertatzen den bezala, lehenengo pausua Tolosak berak klima aldaketari zein ekarpen egiten dion ezagutzea da eta, honez gain, zeintzuk dira gehien emititzen duten sektoreak eta zein izan da azken urteetako emisioen bilakaera. Udala informazio hau guztia 2010. urtetik aurrera lantzen ari da, urtero berotegi efektuko gasen inbentarioa kalkulatu. Jarraian, eskuragarri dauden azkeneko datuak azaltzen dira:




Tolosan, tamaina antzeko udalerriri gehienetan gertatzen den bezala, garraioa da klima aldaketan eragin handiena duen sektorea, erregai fosilen kontsumoaren ondorioz sortutako isurketa totalaren erdia baino gehiago suposatzen dutelarik (%56). Bizitegiak eta zerbitzuak jarraitzen diote (%18 eta %10), kasu honetan emisioak argindarra eta gas naturalaren kontsumoaren ondorioa direlarik. Hondakinen kasuan (%10), gasen isuriak jasotako hondakinen kopurua eta hauek non amaitzen dutenaren arabera da. Industria kutsatzaileen gure udalerritik atera zirenetik, sektore honek klima aldaketan duen eragina oso baxua da (%3). Azkenik, ekarpen oso txikiarekin ere, abeltzaintza eta laborantza ditugu (%3 eta %1).

*Iturria: Tolosako Udala.*

**2007tik 2013.** urtera arte berotegi efektuko gasen emisioak **%12,7an murriztu** dira. Urte tarte honetan sektore guztietan emisioak murriztu dira, zerbitzuak eta bizitegi sektorean izan ezik, non %32 eta %26ko igoerak egon diren hurrenez hurren.

**4,6 btCO<sub>2</sub>** emititu zituen tolosar bakoitzak 2013. urtean, 2007. urtearekin konparatuz **%18 gutxiago**. Euskadi mailako datuekin konparatuz, berotegi efektuko gasen emisioei dagokionez, Tolosako egoera beste tamaina antzeko udalerriena baino zertxobait hobea dela esan daiteke.

Hasiberri den gai bat dela esan daiteke eta Tolosan oraindik ez du azterketa hori egin. Hala ere, Udalak dagoeneko intzidentzia gehien daukaten **arriku naturalak** zeintzuk diren ezagutzen ditu, uholdeak eta mendi-hegalen irristatzearenak hain zuzen. Oria ibaiak Tolosan uholde arrisku handiko eremu bat dago:



Uholde Arriskuen Kudeaketarako 2015-2021 Planean espazioaren araberako kalteak aurreikusten dira eta bertan, Uholdeak jasateko arrisku esanguratsua duten eremuen kartografian (ARPSI). Tolosan arrisku gehien duten 2 zonaldeetako kalteak minimizatzeko ekimenak planteatzen dira:


- **Tolosako Alde Zaharra eta Euskal Herria eta Lapurdi eremuak:** %58ko kaltea.
- **Erdialdea:** %33ko kaltea.

*Iturria: Uholde Arriskuen Kudeaketarako 2015-2021 Plana.*

## • KONTSUMOA ETA HONDAKINAK

### Ura

2015. urtean goi-banaketan hiruhileko batez besteko ur kontsumoa 322.000 m<sup>3</sup> ingurukoa izan zen, eta behe banaketan 255.000 m<sup>3</sup> ingurukoa. Beraz, goi eta behe-banaketa kontsumoaren arteko aldea %21 da eta EAE Ingurumeneko II. Esparru Programako konpromisoaren azpitik kokatzen da, izan ere, konpromisoa zenbatu gabeko uraren kontsumoa %25etik ez pasatzea zen.



Uraren kontsumoa 2012an jaitsi egin zen eta geroztik egonkorra dago. Euskadiko batez besteko ur kontsumoa baino baxuagoa da (123 l/biz/egun 2013. urtean).


### Administrazioan eta jarduera ekonomien ingurumen irizpideak

Administrazioan eta jarduera ekonomietan ingurumen irizpideak txertatzeari dagokionez, Udalak Erosketa eta Kontratazio arduratsuen aldeko konpromisorik hartu ez badu ere, udal eraikinetan zenbait ingurumen

hobekuntza ezarri dira, batez ere energia kontsumoa eta hondakinen gaikako bilketaren hobekuntza helburu izan dutenak. Honetaz gain, udal zerbitzu eta eraikin guztietatik bakar batek dauka Ingurumen Kudeaketa sistema bat ezarria, konkretuki, **Iurreamendiko Zahar Egoitzak**, Ekoscan arauaren arabeko ziurtagiria daukalarik.

Atal honetan azpimarratzekoa da baita ere Tolosan burutzen diren ekitaldiek sortzen duten ingurumen inpaktua, zeina saihesteko edalontzi berrerabilgarriak banatu izan dira, beste ekimen batzuen artean.


## Hondakinak



Azken urteotan hondakin sorrera jaisten joan da. Datua Gipuzkoako eta Euskadiko 2013ko batez bestekoa baino baxuagoa da (1,37 kg/biz/egun eta 1,36 kg/biz/egun hurrenez hurren). 2015eko datua Tolosako edukiontzietan bildutakoa eta Garbiguneetan bildutakoa da. "EAEko Hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko Plana 2020" dokumentuak hondakinen sorrera %10 gutxitzearen erronka zehazten du, erreferentzia bezala 2010an sortutako hondakinen datuak hartuz.

*Iturria: Tolosako Udala, 2016.*

Tolosaldeko Mankomunitateak eta Tolosako udalak hiri **hondakinen prebentziorako eta kontsumo arduratsua** sustatzeko hainbat kanpaina burutu dituzte (Etxeko Ura, Ontziratuz zaitez, merkatarien poltsa berrerabilgarriak, berrerabili daitezkeen edalontziak...). Tolosako garbigunean, gune bat ezarri da, berrerabilgune izenekoa, berrerabili daitezkeen objektuak bertan uzteko.



Grafiko honetan 2016 urtean zehar edukiontzien bitartez jasotako etxeko hondakinen banaketa erakusten da. Biohondakinak (organikoa) eta errefusa zati handienak dira.

*Iturria: Tolosaldeko Mankomunitatea, 2016.*

**Elikagai xahuketaren prebentzio**ari buruzko ekimen puntualak egin izan dira hondakinen prebentzio astean. Tolosan hondakinak jasotzeko zerbitzua Mankomunitateak ematen du eta gaur egun, **etxeetako hiri hondakinak jasotzeko** 5 edukiontziz osatutako sistema dago, guztiak sarbide librekoak direlarik bai hirian, baita landa eremuan ere. Azken urteotan gaikako bilketaren tasak gora egin du (edukiontzietan jasotakoak). Edukiontziez gain, erabilgarri daude baita ere Tolosako **Garbigunea** eta hondakin bereziak biltzeko Mankomunitateak ezarria duen etxola baita ere.

**Mankomunitateak bolumen handiko hondakinak eta dendetako kartoia jasotzen ditu** baita ere. Bestalde, industria guneetan, enpresetan sortzen den kartoia, zura eta gainerako hiri-hondakinak biltzeko gaikako eta aterik ateko zerbitzua eskaintzen du.

Tolosan hondakinak jasotzeko zerbitzua  
Mankomunitateak ematen du eta gaur  
egun, etxeetako hiri hondakinak jasotzeko  
5 edukiontziz osatutako sistema dago





---

# HERRITARREK DIOTENA

---

ingurumena eta lurralde  
antolamendua

---

Eremu berriak okupatzeko beharrik ez da ikusten, orain dagoenaren birgaitzea sustatu beharko litzatekeelarik, garapen berrietan ordea, Tolosaren identitatea eta izaera errespetatu beharra dago. Landa auzoei dagokienez, berauen etorkizunari buruzko hausnarketa beharrezkoa ikusten da. Honez gain, bertakoek herrigunera mugitzeko zailtasunak ere pairatzen dituzte .



---

“Hondakinen arloan egindako lana herritarren sentsibilizazioa areagotzeko balio izan du”

---

Hondakinen arloan azken urteetan egindako lana herritarren sentsibilizazioa areagotzeko balio izan du. Gaika biltzen diren hondakinen kopurua mantendu den arren, sailkatzen denaren kalitatea hobetu daitekeenaren ustea dago.

---

Mugikortasunaren arloan, garraio publikoa hobetu da eta bizikleta erabiltzeko bidegorriak eta 30 eremuak egokitu dira, nahiz eta azken hauetan jendea ez den guztiz seguru sentitzen eta askotan espaloiak erabiltzen dira. Hala ere, kotxearen erabilera oso altua da, kontuan izanik gainera, Tolosa herri burua dela. Energiari dagokionez, kontsumo iraunkorra egitea nahiko zaila ikusten da. Hala ere, arlo honetan udalak eredu garri izan beharko luke (energia Som Energia edo Goiener-ekin kontratatuz, birgaitze lanetan irizpide energetikoak txertatuz...).



---

Errekaren egoera asko hobetu da azken urteetan eta hainbat espezie ikusten hasi dira. Egoera hau hobetzen jarrai dezan, errearen erabilera eta kontserbazioaren arteko oreka lortu behar da.

---

“Errekaren erabilera eta kontserbazioaren arteko oreka lortu behar da”



---

# ALDERDIEK DIOTENA

---

ingurumena eta lurralde  
antolamendua



---

Etxebizitzan birgaitzean jarri behar dira indarrak, Alde Zaharreen batez ere, datozen urteetara begira, piramide demografikoa ikusita, auzoa husteko arriskua baitago. Honekin lotuta, San Esteban bezalako espazioak berritzeko orduan bertako gune abandonatuak bereganatu eta, bertako bizilagunekin elkarlanean, auzoaren planeamendua landu eta espazio publikoaren erabilerak definitu beharko lirateke. Hau guztia, herriak zabaltzeko dituen aukerak eta mugak kontsideratuz eta baita proiektua ekonomikoki jasagarria izan behar duela kontuan izanik.

Auzo eta guneen izaera mantendu beharko litzateke eta herrigune eta auzo guztietan irisgarritasuna, aisialdi guneak eta beharrezko ekipamenduak bermatu beharko lirateke. Herria Oria ibaiari begira jarri beharko litzateke, ibaiak eskaintzen dituen aukerak eta erabilera ezberdinak sustatuz.

“Herria Oria ibaiari begira jarri beharko litzateke, ibaiak eskaintzen dituen aukerak eta erabilera ezberdinak sustatuz”

---

Energiaren esparruan, aurrezpena eta burujabetza sustatu beharko litzateke, Tolargi izateak ematen dituen aukerak aprobeztatuz eta herriarren kontzientziazioa bultzatuz.

---

Lehen sektorea sustatzeko eta, honekin lotuta, tokiko ekoizpena eta kontsumoa modu jasangarrian bideratzeko beharra dago. Ekoizleen eta kontsumitzaile potentzialen arteko harremanak erraztu beharko lirateke, bai eskola edo 3. adineko zentzuen jangelen bitartez, bai azoken bitartez.



“Ekoizleen eta kontsumitzaile potentzialen arteko harremanak erraztu beharko lirateke”

---

Hondakinen gaikako bilketa indartu behar da, beharrezkoa den jarraipena eginez, karakterizazioa barne, eta horretaz gain, herritarren kontzientziazioaren ildoak lantzen jarraitu, eragile eta alderdi guztien mezu bateratuak emanez.

---

Mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua egin beharra dago, trafikoaren antolaketaren inguruko hausnarketa bat egin eta bidegorriak hobetu seinaleztatuz.



Ekonomia

# 1 HAU DA TESTUINGURUA

2012an Tolosako Udalak abian jarritako Merkataritza Indarberritzeko Plan Bereziak aurreikusten zituen jada udalerriko garapen ekonomikoan estrategikoak eta elkarren menpekoak diren gaiak: merkataritza, azokak eta turismoa. Ildo horiek landuz, gainera, lan-merkatuaren garapena lortzeko aukera zabalitzen da ere (ekintzailtza sustatuz, belaunaldien erleboa ahalbidetuz).

Azokak Tolosako ikurra dira ere eta ukaezina da ekonomian duten inpaktua eta nekazaritza sektorearekin duen harreman estua.

Zalantzarik gabekoa da merkataritzak udalerriko ekonomian duen garrantzia, haren establezimendu-sare sendoaren bitartez, sortzen dituen lanpostu kopurua eta BPG-ri egiten dion ekarpena ikusita. Baita, azokak Tolosako ikurra dira ere eta ukaezina da ekonomian duten inpaktua eta nekazaritza sektorearekin duen harreman estua; horrenbestekoa da azoken garrantzia, horren inguruko ikerketa egiten ari dela. Turismo arloan, Tolosak baditu hainbat indar-gune: gastronomia, kultura-eskaintza, natura-ingurunea,...

Tolosak baditu hainbat indar-gune: gastronomia, kultura-eskaintza, natura-ingurunea, . . .

eta baliabide horiek Gipuzkoara/Donostiara datozen bisitarien interesa finkatzeko erakargarri gisa joka dezakete, Basquetour-ek ezarritako ildoari jarraituz.



Argi dago lan-ildo horiei ekiteko ezinbestekoa dela lurralde eta eskualde mailako eragileekin elkarlanean aritzea.


Garapen ekonomiko hori nola bideratu aztertze-ko, udalerriko Hiri Ekonomiaren Plan Estrategikoa martxan jarri du Tolosako Udalak. Hala ere, argi dago lan-ildo horiei ekiteko ezinbestekoa dela lurralde eta eskualde mailako eragileekin elkarlanean aritzea.

Garapen ekonomiko horretan pertsonak dira ardatz; neurri horretan, merkataritza, azokak eta turismoa sostengatuko duten langileak beharko dira, bai eskarmentua dutenak bai plantilen gaztetzea ahalbidetuko dutenak. Prestakuntzak garrantzi handia izango du ere etorkizuneko lan-profilei erantzun ahal izateko.

# 2 HAUEK DIRA DATUAK

## • GARAPEN EKONOMIKOA


### Ekonomiaren egitura eta jarduera-mailaren bilakaera



Bilakaera 2008-2015	
Tolosa	-18,4%
Tolosaldea	-11,9%
Gipuzkoa	-16,5%

Tolosako enpresa-parkeak beherakadari eustea lortu du azken biurtekoan, eta 1.600 establezimendu inguruan geratzea lortu du. Krisia hasi zenetik, ordea, establezimendu-kopuruaren galera garbia 363koa izan da, hau da, parke osoaren % 18ko beherakada. Tolosan izan den inboluzioa Tolosaldea eskualdeko joera (-% 11,9) baino dexente handiagoa izan da. Eskualdeak Gipuzkoako lurraldeak baino hobeto eutsi dio atzeraldieren ondorioei (-% 16,5).


*Iturria: EUSTAT. Jarduera ekonomikoaren bilakaera.*



Establezimendu-kopuruak izan duen bilakaerari dagokionez, urte arteko saldo garbia, hau da, urtean ireki eta ixten diren establezimenduen arteko aldea, krisia hasi zenetik balio negatiboak eman dira ratio honetan, eta azken urte hauetan Gipuzkoakoak baino tasa negatibo altuagoak adierazi ditu.

*Iturria: Norberak egindakoa Udalmapeko eta EINEko datuetan oinarrituz.*

#### ESTABLEZIMENDUEN PISUAREN BILAKAERA SEKTOREAREN ARABERA



Udalerrian kokatutako establezimendu guztien %80,7 zerbitzuen sektoreari dagozkie, eta kopuru hori egonkor mantendu da azken urteetan. Tolosako enpresa egituraketa horretan eraikuntza sektoreko establezimenduek % 9,7 hartzen dute, azken urteetako kopuru txikiena.


*Iturria: Udalmap.*

Aurrekoekin alderatuz, Industria sektoreko establezimenduek ehuneko txikia erakusten dute; hala ere, kontuan hartu behar da Zerbitzuen sektoreko establezimenduek baino langile kopuru handiagoa ohi dutela (8,8 batez beste).

Tolosako sektore-egiturak edo -profilak, establezimendu-kopuruaren banaketaren arabera deskribatu denak, bere enpresa-ehunak industria sektoreko establezimendu gutxiago dituela erakusten du. Horrela, eskualde eta lurralde mailan industria sektorean kokatutako establezimenduen proportzioa %12,1 eta %8koa da hurrenez hurren, eta Tolosan, aldiz, %6,4koa da.

Hala ere, Tolosa burua da hirugarren sektoreko establezimendu kopuruari dagokionez, Tolosaldean eta Gipuzkoan kokatutako zerbitzu sektoreko establezimendu kopurua baino askoz ere altuagoa baita. Bestalde, eraikuntzak (%9,7) eskualdean (%12,5) eta lurraldean (%12,4) baino ehuneko apalagoa erakusten du Tolosan.


#### BALIO ERANTSI GORDINAREN BILAKAERA SEKTOREAREN ARABERA



Zerbitzuen sektoreak udal-ekonomian duen garrantzia agerian geratzen da sortutako BEGren mailaren bitartez; hala, zerbitzu sektoreko establezimenduek, udalerrian duten ordezkari-tza mailaren ildoan, udalerriko BEGren ia % 70 sortzen dute. Industria sektoreak, bestalde, BEGren % 17,4 hartzen du, eta eraikuntzak % 12,9.

*Iturria: Udalmap.*

Bilakaerari dagokionez, Zerbitzuen sektoreak goranzko joera adierazi du azken urteetan. Bai Industria bai Eraikuntza sektoreek ekarri duten balioak, aldiz, behera egin du azken urteetan. Enpleguari dagokionez, krisiaren eragina atzeratu egin da. Hala, 2008-2009 aldian enplegu-mailak goranzko bidean jarraitzen zuen eta 6.800 lanpostutik gorako kopuruarekin jo zuen goia.




Bilakaera 2009-2015	
Tolosa	-11,9%
Tolosaldea	-8,9%
Gipuzkoa	-10,2%

Hala ere, ondorengo enplegu-galera, hau da, 2009tik aurrerakoa, establezimendu-kopuruaren antzekoa izan da. Horrela, enplegu-galera %11,9koa izan da udalerrian, Tolosaldean izandakoa (-%8,9) eta Gipuzkoan izandakoa (-%10,2) baino altuagoa.

*Iturria: EUSTAT. Jarduera ekonomikoen bilakaera.*


Enpresen tamaina mugatua da eta oso lotuta dago udalerriko ekonomia-egituran zerbitzuen sektoreak duen garrantziarekin.



Horrela, udalerriko establezimenduen ia %90ek 5 enplegu baino gutxiago ditu, eta ia %80k bi langile baino gutxiago.

*Iturria: EUSTAT. Jarduera ekonomikoen bilakaera.*


**SEKTOREETAN OKUPATUTAKO 16 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLERIA**



Zerbitzu sektorea gero eta langile gehiago gehituz joan da aztertutako epean zehar. Industria sektorea, aldiz, langileak galduz joan da. Eraikuntza sektorean, hazkunde aldia bizi izan da 2006 urtera arte; hortik aurrera, agian krisi ekonomikoaren eraginez, beherakada eman da sektore horretan okupatuta dauden pertsonen kopuruan.

*Iturria: EUSTAT. Jarduera ekonomikoaren bilakaera.*

**ZERBITZU-ESTABLEZIMENDUAK JARDUERA MOTAREN ARABERA (2015)**



- Merkataritza, garraioa eta ostalaritza
- Informazioa eta komunikazioak
- Finantza jarduerak eta aseguruak
- Jarduerak higiezinekin
- Jarduera profesional eta laguntzaileak
- Herri Administrazioa, Hezkuntza eta Osasuna

Zerbitzuen sektorean Merkataritza garraio eta ostalaritza da nagusi, hirugarren sektoreko establezimendu guztien %51,5 inguru osatzen baitu. Zerbitzu profesionalei loturiko adarrak %16,7 hartzen du, herri-administrazioak %13,4, Arteetako eta bestelako jarduerak %11,1 eta finantza-zerbitzuek eta aseguruak %3,5.

*Iturria: EUSTAT. Jarduera ekonomikoaren bilakaera.*

2012. urtean Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia (PERCO) burutu zen Tolosan eta sektore honen diagnosi sakon bat burutu zen. Bertan, egindako diagnosiaren arabera hainbat hobekuntza aukera identifikatu ziren (informazio zehatza kontsultatzeko ikus PERCO-aren txostena).




## • TURISMOA

Turismoaren eskumena **Tolosaldea Garatzen agentziako Turismo** sailak hartzen du bere gain nagusiki. Tolosaldea turistikoki erakargarriagoa izan dadin, eskualdeko turismo-eragileei zuzendutako zerbitzua da eta **turismo arloko promozioa**, dinamizazioa eta aholkularitzaz arduratzen da.

Tolosak ondare-aberastasun ugaria eta garrantzitsua du: **Gatzelako Atea, San Frantzisko eliza, Santa Klara Komentua, Idiakez Jauregia**...eta udal ekipamenduak kokatuta dauden hainbat eraikin historiko, besteak beste: **Udaletxea, Aranburu Jauregia, Errota**... Baita, bi museo interesgarri daude udalerrian: **Topic** (Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa) eta **Gorrotxategi Gozogintza Museoa**. Horrez gain, baliabide natural eta erakargarritasun turistikoa askotarikoak ditu Tolosak (azokak, kalitatezko merkataritza-sarea,...). Hala ere, ekipamendu aldetik, badu Tolosak zer hobetzerik, eskualde mailan eskaintza zabalena duen udalerria bada ere, egun dauden ekipamenduek eguneratzeko premia adierazten baitute, udal teknikarien hitzetan.


TOLOSALDEKO OSTATU ESKAINTZA 2016				
HERRIA	Establezimendu kopurua	%	Plaza kopurua	%
Aduna	2	9,52	44	11,67
Albiztur	1	4,76	11	2,92
Alkiza	1	4,76	12	3,18
Amezketeta	1	4,76	12	3,18
Anoeta	1	4,76	10	2,65
Asteasu	3	14,29	30	7,96
Berastegi	2	9,52	20	5,31
Berrobi	1	4,76	12	3,18
Bidegoian	1	4,76	38	10,08
<b>Tolosa</b>	<b>4</b>	<b>19,05</b>	<b>170</b>	<b>45,09</b>
Villabona	3	14,29	24	6,37
Zizurkil	1	4,76	4	1,06
<b>GUZTIRA</b>	<b>21</b>	<b>100</b>	<b>377</b>	<b>100</b>



2016ko datuen arabera, ostatuko plazak eskaintzen dituzten 4 establezimendu daude Tolosan, guztira 170 plaza bilduz. Hau da, 10 turismoko ostatuko plaza inguru eskaintzen dira 1.000 biztanle bakoitzeko (zifra zehatza 8,89 da, hau da, 2005-2010 denboraldian zehar erregistratutako ratioen azpitik). Eskualdeko gainerako udalerriekin alderatuz, ostatu-ekipamenduan tipologia aniztasun handiena erakusten duen udalerria da Tolosa, hainbat motatako ostatuak eskaintzen baititu: 2 hotel, 2 pentsio eta nekazal turismo bat. Eskualdeko ostatu-establezimendu kopuruaren % 20 inguru hartzen du Tolosak, eta dauden plaza kopuruaren ia erdia udalerrian kokatzen dira. laburbilduz, eskualde mailan ostalaritza-establezimendu eta plaza eskaintza zabalena duen udalerria da Tolosa.

*Iturria: Udaleko Ekonomia Saila.*


*Iturria: Udalmap.*



Tolosan 6 ostalaritza establezimendu eta jatetxe daude batez beste 1.000 biztanle bakoitzeko. Kopuru horrek behera egin du azken urteetan. Adierazle hori esanguratsua den ala ez aztertzeko, beste udalerri batzuen batez bestekoe-kin aldera dezakegu; esaterako, Lasarte-Oriak, biztanle kopuruaren aldetik Tolosaren mailakoa dena, kopuru berdintsua erakusten du. Inguruko beste kostaldeko udalerri turistikoekin alderatuz, Getaria (16) eta Deba (9) nabarmen-tzen dira, eta beste batzuk Tolosako mailan daude (Zarautz eta Zumaia).

*Iturria: Udalmap.*



Tolosan 19 txikizkako merkataritzako establezi-mendu daude 1.000 biztanle bakoitzeko. Kopuru hori azken urteetan jaitsi bada ere, inguruko bes-te udalerri batzuekin alderatzerakoan ikus daiteke dentsitate hori handiagoa dela Tolosan. Horrela, Lasarte-Orian 9 establezimendu daude batez beste; Zarautz (15), Zumaia (12), Deba (12) edo Getaria (10) Tolosako batez bestekoaren azpitik kokatzen dira, udalerri tradizionalki turistikoagoak badira ere.



*Iturria: Udalmap.*

Tolosako merkataritza-sarea bisitariak erakartzeko pizgarri interesgarria izan daiteke.

## • LAN MERKATUA



Gero eta tolosar gehiago daude lanerako adinean, lanean edo lanaren bila (%47,4); Tolosaren jarduera-tasa Gipuzkoakoa (%48,1) eta eskualdekoa (%48,1) baino pixka bat baxuagoa da; bilakaerari erreparatuta, aldiz, Tolosak goranzko joera adierazten du, lurraldeak eta eskualdeak ez bezala.

16 eta urte gehiagoko biztanle tolosarren ia erdia lanean ari dira. Hala ere, biztanle okupatuak kopuruak behera egin du 2006tik 2011ra. Horrela, jaitsiera hori txikia izan da Tolosan (-%0,5); Gipuzkoan (-%5,2) eta Tolosaldean (-%2,7), aldiz, beherakadak nabariagoak izan dira.

Generoaren arabera, lanean ari diren gizonen kopurua emakumeena baino askoz ere altuagoa da (ehuneko 10 puntuzko aldea). Hala ere, bilakaerari erreparatuta, emakumeen joera goranzkoa dela ikus daiteke, lan-merkatu gehitzen ari diren heinean; gizonen kasuan, aldiz, okupatuak kopuru behera doa. Hala ere, kontuan hartu behar da datuak 2011koak direla eta krisi urte hauetan aldaketak egon direla lan-merkatuan eta haren osaketan.

Iturria: Udalmap.

Tolosaren kasuan, **merkataritzak pisu adierazgarria du** biztanleria okupatuarengan, Tolosaldeak eta Gipuzkoak adierazten dituzten ehunekoak baino hamarren batzuk altuagoa. Garrantziaren arabera, pertsona okupatu kopuru handiena biltzen duen bigarren sektorea Industriarena da, eta zehazki **manufaktura-industria**.

Azkenik, Nekazaritza eta Eraikuntza sektoreak ehuneko txikiak adierazten dituzte hartzen duten biztanle kopuruaren aldetik.

METATUTAKO KONTRATUAK, SEKTOREAREN ETA SEXUAREN ARABERA (2015)

JARDUERA EKONOMIKOAK	Gizona	Emakumea	Emakumeen partze-hartzea
<b>NEKAZARITZA ETA ARRANTZA</b>			
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basogintza	21.259	2.000	8,6%
Arrantza eta akuikultura	1.350	36	2,6%
<b>INDUSTRIA</b>			
Ateratze-industriak	90	31	25,6%
Manufaktura-industriak	104.888	29.991	22,2%
Elektrizitatea, gasa eta ura ekoiztu eta banatzea	4.870	593	10,9%
<b>ERAIKUNTZA</b>	35.929	1.878	5,0%
<b>ZERBITZUAK</b>			
· <i>Merkatuko Zerbitzuak</i>			
Merkataritza eta konponketa	46.479	62.720	57,4%
Ostalaritza	53.920	85.164	61,2%
Garraioa, bilketa eta komunikazioak	51.870	10.242	16,5%
Finantza-bitartekaritza	2.092	4.287	67,2%
Onibar-jarduerak eta alokairukoak; enpresa-zerbitzuak	77.918	97.808	55,7%
· <i>Ez-merkatuko Zerbitzuak</i>			
Herri-administrazioa	4.082	6.057	59,7%
Hezkuntza	12.110	28.842	70,4%
Osasun eta albaitaritza-jarduerak, gizarte-zerbitzua	21.236	85.164	80,0%
Bestelako zerbitzuak eta norbanakoentzako zerbitzuak	28.770	27.368	48,8%
Etxeko langileak dituzten etxebizitzak	1.600	15.338	90,6%
Lurraldez kanpoko erakundeak	121	160	56,9%
<b>GUZTIRA</b>	468.584	457.679	49,4%

Jarduera ekonomiko ezberdinak azterterakoan, deigarria da kontratu kopuru handiena emakumeari dagokiola gizarte zerbitzuetan eta etxeko langileen kasuan; aldiz, lehen sektorean, industrian eta eraikuntzan emakumeei egindako kontratu kopurua aski jaisten da.


*Iturria: Lanbide.*

>=16 URTEKO BIZTANLERIA OKUPATUA LURRALDE EREMUA ETA JARDUERA-ADARRAREN ARABERA (2011)

JARDUERA-ADARRA	LURRALDE-EREMUA		
	Tolosa	Tolosaldea	Gipuzkoa
<b>NEKAZARITZA ETA ARRANTZA</b>	0,7%	1,4%	0,9%
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basogintza	0,7%	1,4%	0,7%
Arrantza, akuikultura	0,0%	0,0%	0,2%
<b>INDUSTRIA</b>	27,5%	29,7%	23,6%
Ateratze-industriak	0,1%	0,1%	0,1%
Manufaktura-industria	26,9%	29,0%	22,8%
Elektrizitatea, gasa eta ura ekoiztu eta banatzea	0,5%	0,6%	0,7%
<b>ERAIKUNTZA</b>	6,1%	8,0%	7,0%
<b>ZERBITZUAK</b>	65,7%	61,0%	68,5%
· <i>Merkatuko Zerbitzuak</i>			
Merkataritza eta konponketa	14,5%	14,2%	15,3%
Ostalaritza	5,0%	5,7%	7,0%
Garraioa, bilketa eta komunikazioak	4,3%	4,9%	6,2%
Finantza-bitartekaritza	2,1%	1,6%	2,3%
Onibar-jarduerak eta alokairukoak; enpresa-zerbitzuak	9,7%	8,6%	11,4%
· <i>Ez-merkatuko Zerbitzuak</i>			
Herri-administrazioa	4,4%	4,0%	4,4%
Hezkuntza	9,8%	8,2%	7,7%
Osasun eta albaitaritza-jarduerak, gizarte-zerbitzua	10,3%	8,5%	8,3%
Etxeko langileak dituzten etxebizitzak	1,5%	1,5%	1,5%
Bestelako gizarte-zerbitzuak eta norbanakoentzako zerbitzuak	4,2%	3,9%	4,3%

Biztanleria okupatuaren ikuspegi-tik, Zerbitzuak pisu handiena duen sektorea da: 3 pertsona okupatu-tuetatik 2 hartzen ditu Zerbitzuen Sektoreak Tolosan; Gipuzkoaren ehuneko horren gainetik kokatzen da, Tolosaldea ez bezala.


*Iturria: EUSTAT.*



Biztanleria okupatuaren ikuspegitik, Zerbitzuak pisu handiena duen sektorea da: 3 pertsona okupatuetatik 2 hartzen ditu Zerbitzuen Sektoreak Tolosan; Gipuzkoaren ehunekoa horren gainetik kokatzen da, Tolosaldea ez bezala.

*Iturria: Lanbide.*

## Biztanleriaren ikasketa-maila eta etorkizuneko lan-profilak



Tolosako 10 urtetik gorako biztanleen %63,4k bigarren mailako ikasketak ditu gutxienez; batez besteko hori lurralde (%63,0) eta eskualde (%57,9) mailakoak baino altuagoa da.

*Iturria: EUSTAT.*

Laboral Kutxak egindako Perspectivas sectoriales del empleo en la economía vasca txostenean adierazten den bezala, bi dira lanpostuak sortzeko aurreikusten diren bideak:

- **Dinamismo ekonomikoaren ondoren sortutako lanpostuak: sortzen diren lanpostu berriak.**
- **Erretiroaren ondorioz, bete gabe geratuko diren lanpostuak.**

Lehenengoan erreparatuta, Lanbidek aurreikusten du lanpostuak ondorengo sektoreetan sortuko direla: Gizarte eta Kultura Zerbitzuetan eta Komunitateari bideratutako zerbitzuetan, Merkataritza eta Marketing, eta neurri txikiagoan Ostalaritzan, Turismoan eta Fabrikazio Mekanikoan. Bi faktore kontuan hartuta, enplegu aukera handiena adierazten duten sektoreak dira: Fabrikazio Mekanikoa, Ostalaritza, Turismoa, Osasuna, Merkataritza eta Marketing.



---

# HERRITARREK DIOTENA

---

ekonomia

---

### SEKTORE EKONOMIKOAK:

- Merkataritza: Tolosaren identitatea edo ikurra. Berau mantentzea eta kanpoko erosleekin inartzea dira erronka nagusiak.
- Industria: Tolosak paperari lotutako industria-iragan indartsua du. Industria hau desagertu den arren, ezagutza guzti horretan oinarrituz, udalerrriak industria esparruan bere burua “birrasmatu” egin beharko luke, egungo errealitatera egokituz.
- Nekazaritza: lehen sektoreak hazteko aukera handiak ditu eta beste sektore ekonomikoet

---

Langabezia-tasari dagokionez, kontuan hartu beharreko hainbat gai daude: kroniko bilakatzen ari diren sektoreak, bete gabe gelditzen ari diren profilak, nekazaritzaren kasua, lan baldintzak, etab. Etorkizunera begira formazio espezializatuan eta gaitasunei garrantzi berezia ematen zaio, enpresek eskatzen dutenari erantzun ahal izateko. Hala ere, zenbait arlotan eta konkretuki Lanbide Heziketaren arloan, neskekin aurreiritziak daude, baita arrazarekin ere.

“Donostiarekin eta beste eskualdeekin elkarlana”



ematen zaion garrantzi edo seriotasun berdina eman beharko litzaioke.

### BESTE GAIK:

- Ekintzaitasuna bide ezberdinetatik sustatu behar da baita belaunaldi aldaketa, bereziki merkataritza eta nekazaritza arloetan, gazteei udalerrian lan eta bizi ahal izateko aukerak emanez.
- Azoken inguruko hausnarketa berezia egin behar da, hauek esperientzia gune bihurtuz.

“Etorkizunera begira espezializatuan eta gaitasunei garrantzi berezia ematen zaio, enpresek eskatzen dutenari erantzun ahal izateko”

---

Tolosarako bilatzen den turismo mota: dentsitate baxukoa, kalitatezkoa edo “selektiboa”, kultura, gastronomia eta natura bultzatzen dituena, etab. Horretarako elementu zehatzak hartu behar dira kontuan, horien artean identitatea ematen dion merkatuaren posizionamendua, hiri komertziala eta antolatzen diren ekitaldiak hobeto saltzea. Honez gain, eskualdeak Tolosaren garapen turistikoan duen garrantzia eta Donostiarekin eta beste eskualdeekin elkarlana ere kontuan hartu behar dira, sinergiak aprobetxatuz.



---

# ALDERDIEK DIOTENA

---

ekonomia



---

Tolosaren identitatearen zati garrantzitsua diren herriko hiru azoka guneak indartu behar dira. Azokak lehen sektorea sustatzeko ezinbestekotzat jotzen dira eta merkataritza, ostalaritza eta natur inguru-nearekin batera, turismoa erakartzeko elementu nagusi bezala ikusten dira.

Merkataritzari dagokionez, hain indartsua den sektorearen etorkizuna bermatzeko berau gaztetu eta modernizatzeko beharra dago, egungo errealitatera egokitze laguntza larriak martxan jarritz. Gune eta kale zaharkituetan denda berrien sorrera bultzatu beharko litzateke, herri bizia lortzeko ezinbestekoak baitira.

---

Industria eskualdea izanik, berau izaten jarraitu behar da. Horretarako, enpresa txikien arteko sinergiak eta intra-ekintzailtza sustatu behar dira, eskualde mailako garapen estrategiaren barne. Enpresarekiko aitorten soziala bultzatu behar da eta, aldi berean, nazioarte mailako lehiakortasunari aurre egiteko, industriei modernoagoak eta teknologikoki aurreratuak izaten lagundu behar zaie, bere inguruarekiko konpromiso sendoa sustatuz.

“Tolosarako nahi den turismo ereduaren inguruko hausnarketa sakona egin beharra dago”



“Gune eta kale zaharkituetan denda berrien sorrera bultzatu beharko litzateke, herri bizia lortzeko ezinbestekoak baitira”



---

Tolosarako nahi den turismo ereduaren inguruko hausnarketa sakona egin beharra dago. Ekintza berritzaileak sustatu behar dira turismoa berpizteko eta, aldi berean, Tolosako bizitza sozial eta ekonomikoa indartzeko. Azokak eta tokiko produktuak, merkataritza, ostalaritza eta natur baliabideen arteko loturak indartu eta koordinatu behar dira.



6

HONA  
HEMEN  
ONDORIOAK

# PERTSONAK

---

## Gizarte zerbitzua hurbilak eta udalerrri inklusiboa

Tolosan espazio, zerbitzu eta aisialdirako aukera inklusiboak sustatu behar dira egoera ezberdinetan dauden pertsonak kontutan hartzen dituztenak. Egoera larrian dauden pertsonen laguntzeko oinarritzko zerbitzuak ziurtatu behar dira eta, honekin batera, euren errealitatea ezagutarazi. Gizarte zerbitzuetatik arlo honetan lan egiten bada ere, eskaintzen diren prestazioak (bai ekonomikoak, baita beste eratakoak ere) ezagutaraztea beharrezkotzat jo da, estereotipoak gainditu eta zerbitzua herritarrengana hurbilduz.

---

## Espazio publikoa herritarren arteko harremanak bultzatzeko eta gizartearen balore partekatuak indartzeko tresna

Gizartearen kohesioa eta pertsonen zein belaunaldien arteko harremanak eta sormena sustatuko dituzten espazio publiko ireki, zein itxiak garatzearen beharra dago, adin desberdinetako beharrei zuzendutako ekipamendua eta aisialdi eskaintza egokitu eta anitza eskainiz eta hauen kudeaketarako formula ezberdinak baloratu.

Bestalde, gizarte sektore desberdinak udalerrian inplikatu eta euren parte hartzea sustatu behar da, batez ere haur eta gazteak eta 3. adinekoak, beraien ahotsa entzuteko parte-hartze eredu berriak sortu behar direlarik.

Gizarte sektore desberdinak udalerrian inplikatu eta euren parte hartzea sustatu behar da, batez ere haur eta gazteak eta 3. adinekoak

---

## Emakumeen jabetza eta autonomia

Emakumeen jabetza eta autonomia indartzea lehen-tasuneko gaia da, baita maskulinitate eredu berriak eta kontziliazio politikak sustatzea ere, eragile desberdinen inplikazioa eta konplizitatea lantzea, horretarako emakumeentzako erreferente izango den gune propioa sortzea egokia izan daitekeelarik.

Honetaz gain, emakumeak eta kolektibo guztiak (LGTBI) Tolosa herriak dituen espazio publiko guztiak propio bezala ulertu eta sentitzea lortu behar da.

# KULTURA ETA HEZKUNTZA

---

## Kultur sorkuntza eta ekipamenduen zuzkidura

Udalerrriak dituen ekipamendu eta gune ezberdinen inguruko hausnarketa sakon eta integrala egiteko beharra dago, Feriala eta Zezen plaza barne, gaur egun dagoenaren argazki zehatz batetik abiatuz, herriko kultur eskaintza eta sorkuntzari erantzun ahalik eta egokiena emateko helburuarekin, sinergiak bilatuz. Aldi berean, kultur arloan ekintzailtza eta bestelako erabilera berriak ere ahalbidetu eta Gipuzkoan burutzen diren beste kultur ekimenenekiko osagarritasuna bilatu behar da.

---

## Euskararen erabilera eta hizkuntza pasaia

Tolosar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuz, euskara elementu bateratzailea izatea bultzatu behar da. Normalizazioaren bidean, euskararen presentzia eta bere erabilera areagotu beharra dago, lan munduan eta adin guztietako espazio informaletan arreta berezia jarritz. Horrekin batera, hizkuntza pasaia aintzat hartu behar da baita ere, kalean euskararen presentzia nagusi izan dadin.

Honez gain, euskararen erabilera areagotze aldera, Udalak elkarlana sustatu behar du, besteak beste, euskalgintzarena eta proiektu bateratuak bideratzeko hainbat foro edo mahaietan ere parte hartu.

---

## Kirol ereduak eta baloreen sustapena

Eskola kirola eredu berrindartu eta sustatu beharra dago, udalaren babesarekin bere filosofia kirol taldeetara ere zabaldu beharko litzatekeelarik, zenbait balore positiboaren transmisiorako tresna gisa, eta konpetitiboa ez den kirol eskaintza sustatu, sentsibilizazio lan honetan gurasoek duten garrantzia aintzat hartuz.

Ikastetxeek irekiagoak izan eta herriari begira egon beharko lukete, zentro desberdinak elkarlanean arituz

---

## Hezkuntza irekia eta elkarlanean

Ikastetxeek irekiagoak izan eta herriari begira egon beharko lukete, zentro desberdinak elkarlanean arituz, jatorri ezberdineko ikasleen integrazio orekatua sustatuz. Ikasketa ez-formalari garrantzi gehiago eman behar zaio eskolaz kanpoko ekintzak diseinatuz, online eskaintza areagotuz eta herriari (eta bailari) begirako eskaintza osatuz.

# INGURUMENA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

---

## Hirigintza garapen eredu iraunkorra eta erreka ardatz bihurtuz

Hirigintza garapenak egun eraikita dagoenaren birgaitzeari lehenetsuna eman behar dio, hiri espazioan zein industria eremuan, bilakaera demografikoa aintzat hartu eta etxebizitza hutsak kontuan izanik. Birgaitze honen inguruan, kontutan hartu behar da herria Oria ibaiari begira berrantolatzea, espazio berdeak berreskuratuz.

Honekin batera, udalerrria bera edo auzoak beroneatzean Tolosaren identitatea eta izaera zaintzea beharrezkoa da, herrigunearen zein auzoen irisgarritasuna eta aisialdirako gune egokiak eta herritar guztientzako, eta bereziki emakumeentzako, ingurune seguruak bermatuz.

---

## Kotxerik gabeko hirigunea

Trafikoa hainbat ingurumen kalitate arazo larrien iturria da, horien artean, airearen kalitate arazoak, kutsadura akustikoa edo klima aldaketa. Hau dela eta, hiri barruan berau gutxitzeko neurriak jartzea behar beharrezkoa da. Horretarako, mugitzeko modu iraunkorrak bultzatzeko apustu irmoa egin behar da, irisgarriak diren aukera ezberdinak eskainiz eta guztientzako mugitzeko bide seguruak bermatuz.

---

## Landa eremu bizia eta lehen sektore indartsua

Landa eremuak sustatu behar dira lehen sektorea bultzatzuz. Gazteak nekazaritzara hurbiltzeko ahaleginak egin behar dira, bertako produktua eta komertzializazio bide laburrak sustatuz. Horretarako, udal jabegoa duten lurren inbentario zehatz bat egin behar da, ondoren, lur bankuak sortzearen inguruko hausnarketa abiatzeko helburuarekin.

Landa eremuak sustatu  
behar dira lehen  
sektorea bultzatuz

---

## Klima aldaketari aurre egin eta egokitu

Klima aldaketaren aurrean erantzun irmo eta integrala emateko beharra dago, Udalatik hasita. Horretarako, berotegi efektuko gasen emisioak murrizten jarraitu behar da, Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana gauzatzearen bitartez, energia aurrezpenean eta burujabetzan aurrerapausoak emanez besteak beste.

Honetaz gain, klima aldaketak eragin ditzakeen inpaktu potentzialen aurrean, arriskuak ezagutu, udalerriarren kalteberatasuna neurtu eta egokitze plan baten definizioa abian jarri.

# EKONOMIA

Tokiko produktuak,  
gastronomia eta kultura  
ardatz izango dituen  
kalitatezko turismoa  
bultzatu behar da

---

## Merkataritza eta azokak, Tolosaren ikur

Merkataritza eskaintza desberdindu edo posizionatzeko lan egin behar da, merkatal zentro handiek suposatzen duten erronkei aurre egin ahal izan eta etorkizuna bermatzeko. Tolosa merkataritzarako erakargarri bilakatzeko lan egin behar da.

Azokei dagokionez, lehentasunezkoa da jarduera ekonomikoaren bideragarritasuna bermatzea. Azokak merkataritzako ikur izateaz gain, lehen sektorearen traktore baitira eta turismoa erakartzeko aktiboetako bat.

Arlo honetan dauden erronka nagusiei heldu behar zaie, alde batetik erosle berriak erakarri eta gaztetzeko lan egin behar da, batez ere azoken kasuan. Bestetik, merkataritza eta azokako ekoizleak modernizatu, egoe-rra berrietara egokitu eta belaunaldi aldaketa bermatzeko baliabideak jarri behar dira.

---

## Turismo ereduaren inguruko hausnarketa

Tokiko produktuak (azokarekin), naturara, gastronomia eta kultura ardatz izango dituen kalitatezko turismoa bultzatu behar da, eskualdearen identitatea mantenduz eta Donostia eta inguruko eskualdeekiko elkarlana sustatuz. Hau guztia eta turismoa Tolosako bizitza sozial eta ekonomikorako traktorea izan daitekeela kontutan izanda, Tolosarako zer nolako turismo mota nahi den aztertu behar da honekin bat datorren politikak bultzatze aldera.

---

## Garapen ekonomiko orekatua

Tolosara inbertsioa ekartzeko (industria arloan, zerbitzuetan,...) erakargarri bihurtzeko lan egin behar bada ere, garapena ezin da edozein modutan egin eta eredu berriak uztartu behar dira, eskualdearekin elkarlanean.

---

## Elkarlana, ekintzailetasuna eta lehiakortasuna, industriaren gakoak

Tolosak iragan industrial garrantzitsua izan duen eta oraindik duen udalerrria izanik, orain artekoa ekintzailetzaren ikur eta ikasgai gisa aprobetxatu behar da, gaur egungo arlo berriak garatzeko eta modernizazioa sustatzeko. Enpresa gehienak tamaina txiki edo ertainekoak direla kontutan hartuz, beraien arteko elkarlana eta sinergiak, bultzatzea interesgarria litzateke, baita ekimen pribatu eta publikoen artekoa ere.

Etorkizunera begira formazio espezializatuan eta gaitasunei garrantzi berezia eman behar zaio, enpresek eskatzen dutenari erantzun ahal izateko, egun zenbait sektoreekin (emakumeak, etorkinak) dauden aurreiritziak gaundituz.







# ESKERRAK AGRADEC- MIENTOS

## Herritar eta eragileak *Ciudadanas/os y Agentes*

AITOR ELDUAIEN

AITOR ERRASTI

ANDER AUZMENDI

ANDU MARTINEZ DE RITUERTO

ANGEL URANGA

ARRATE ITURBE

AXIER MANSO

BITTOR FERNANDEZ

CONCHY GONZALEZ

CRISTINA LARRAÑAGA

JOSERRA ZALAKAIN

JOSUNE ZALAKAIN

JOXE LASA

JUAN JAUREGI

JUAN URRETABIZKAIA

KARMELE GOIKOETXEA

KATIXA PEREA

KEPA GOIKOETXEA

KIKE AMONARRIZ

KIKE ZINKUNEGI

KRISTINA MORALES

MARIA JESUS ARRIGAIN

GORKA ELUSTONDO  
(udaltzaingoa)

IÑAKI LASA (gizarte zerbitzuak)

IÑIGO MUÑOZ

(ingurumena eta ta21)

JEXUX PEÑAGARIKANO

(euskara eta zerbitzuak)

JOKIN ANSORENA (kultura)

KIKE ZINKUNEGI (kirolak)

KRISTINA LARRAÑAGA

(enplegua eta garapen ekon.)

LOURDES SENOVILLA

(gizarte zerbitzuak)

EKAITZ ZUBELTZU  
ELENA BASAGOITIA  
GARIKOITZ MURUA  
GARTXOT AGIRRE  
GUILLERMO MALKORRA  
HELENA BARAIBAR  
IBAI LUQUE  
IBON BADIOLA  
IDOIA LAHIDALGA  
IGOR MUJIKA  
IKER KARRERA  
IMANOL ZUBELZU  
INMA MAIZ  
IÑAKI AVERZA  
IÑAKI CRUZ  
IRENE LARRAZA  
IRMA ARNAIZ  
ITZEA URKIZU  
ITZIAR DOLADO  
IVAN ASENJO  
JATSU ORMAZABAL  
JAVIER ARANA  
JOKIN ALDAZABAL  
JOKIN SUKIA  
JON ZUBELDIA  
JOSEBA ANTJUSTEGIETXARTE  
JOSE MANUEL TOLOSA

MARIA MENDILUCE  
MAURO MAROTIES  
MERTXE AMIANO  
MIKEL ARRESEIGOR  
MIREIA CARCELLER  
MIREIA ROCA  
MOIRA ECEIZA  
NAGORE EZEIZA  
NEKANE IZAGIRRE  
OIHANA HERNÁEZ  
OLGA ARTOLA  
PABLO ALBERDI  
TARANA KARIM  
TOMAS PLAZAOLA  
UNAI ANDUEZA  
UNAI OLALDE  
VANESSA ALZATE  
XABIER GOENAGA

### **Udal teknikariak** *Técnicas/os Municipales*

AGURTZA ZUBEROA  
(berdintasuna)  
ANGEL URANGA  
(hirigintza eta obrak)  
ARANTXA ESTANGA (kirolak)  
ARANTXA ZALAKAIN  
(gizarte zarbitzuak)  
GARIKOITZ LEKUONA  
(parte-hartzea)

MAITE SERRANO  
(gizarte zerbitzuak)  
NEREA CERECEDA (gazteria)  
OIHANA HERNÁEZ (azokak,  
turismoa eta merkataritza)  
OLATZ OIARTZABAL  
(feriak eta merkataritza)

### **Udal politikariak** *Políticas/os Municipales*

Olatz Peon Ormazabal  
Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Patxi Amantegi Zubiria  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Maite Ruiz de Eguilas Ezkiaga  
Begoña Tolosa Mendia  
Ibai Iriarte San Vicente  
Onintza Lasa Arteaga  
Iñaki Xabier Irazabalbeitia  
Fernandez  
Igor Ezenarro Balda  
Maria Lasa Arruabarrena  
Peio Etxabe Zabala  
Lore Agirre Zipitria  
Christian Fernandez Susin  
Iñigo Cabieces Casares

